

Goienkaria

KIROLA:
LEHENDAKARIA
AUKERATZEKO
HAUTESKUNDEAK
REALEAN /10-11

EGUBAKOITZA • 2001eko martxoaren 9a • II. urtea • 13. zenbakia • DOAN BANATZEKO



IÑAKI GALDOS
"ETAk herriari hitza ematen jakin beharko luke, gizartea mehatxupean eduki barik" /9

HERRIZ HERRI
Hainbat ekitaldi Elgetan, gaztetxearen bosgarren urteurrenean /4

Goienka2a
Korrika Kulturalaren egitarau zabala Debagoienean

IAZ BAINO BI MILA MILIOI GEHIAGO

Euskadiko Kutxak 22 mila milioi irabazi ditu

Euskadiko Kutxak urteko batzar berezia egin du gaur, egubakoi-tza, eguerdian, Olandixon, egoi-tza nagusian. Juan Mari Otaegi lehendakariak eta Juan Jose Arrieta zuzendariak eman dituzte erakunde finantzarioaren datuak. Bost puntutan laburbil-du dute iazko jarduna Euskadi-ko Kutxako buruek: lehenengoa, merkatu kuotaren hobekuntza eta aurrerapena; bigarrena, ohi-ko negozioaren errentagarritasunaren hazkundea; hirugarrena, eraginkortasun indizean lider-tza lortzea; laugarrena, kudea-

ketagatik Q kalitate sariaren lor-pena; eta bosgarrena eta azkena, datozen lau urteetarako landu den Plan Estrategikoa. Azken horri dagokionez, bi lan arlo azpi-marratu zituzten: batetik, multi-kanal estrategiaren aldeko apus-tua, eta bestetik, estatuan zabal-du nahi diren sukurtsal berrien gainekoa.

Euskadiko Kutxak 22.000 milioi pezetako irabaziak izan zituen iaz. Bestalde, hemendik eta 2004. urtera bitartean, Euskal Herritik kanpo 110 bulego eduki nahi dituzte. /2-3



Komunitate garapenerako esperientziak elkar trukatu dituzte Mundukide Fundazioaren bekadunek.

UBANE MADERA

Hego Amerikatik Debagoienera, Mundukideren Truke Programari esker

Mundukide Fundazioak Truke Programa jarri zuen abian orain dela bi urte. Ekimen hori dela eta, Hego Amerikako 13 lagun Debagoienera etorri dira oraingo aste-an. Ekuador, El Salvador, Guate-mala, Kolonbia, Venezuela eta

Brasilekoak dira, eta Mundukide Fundazioaren bekadun etorri dira. Denak Hirugarren Mundu-ko garapen komunitarioan kon-prometitutako pertsona esangu-ratsuak dira. Hemendik jasotako ezagutzak han abiaraziko dituz-

te. Hirurogei lagunen artean auke-ratu dituzte gurean daudenak. Esperientzia kooperatiboaren errealitate sozial, ekonomiko eta antolaketaren ezagutza jasotze-ko zenbait bisita eta elkarrizketa egingo dituzte. /2-3

BERGARA

Autobus geltokiko txarteldegia itxita

Bergarako autobus geltokiko bulegoa itxi egin du Pesa kon-painiak. Geltokia ez dute ken-duko, baina aurrerantzean ez da txartelak erosi edo kontsultara-ko gunerik izango. Debagoiene-ko jardun administratiboa Arra-sateko Musakola auzoan zen-tralizatu du Pesa konpainiak. Udalak "geltoki garrantzitsua" egiteko asmoa aztertzen dihar-du, Victoriano Gallastegi alka-tearen arabera. /4

HAIKAKO KIDEEN ATXILOKETA

Jose Mari Loitiri eraso egin zioten Arrasaten, protesta ekitaldietan

Haika erakundeko kideen atxi-loketengatik protesta egiteko, eguazten iluntzean Arrasaten izandako manifestazioan kapu-txadun batek eraso egin zion Jose Maria Loiti Arrasateko alkate izandakoari. Kaputxadunak bul-tza egin eta lurrera jausi zen EAJ-ko zinegotzi eta bozeramailea. Ondorioz, zauri arinak jasan zituen eskumako erpuruan. Hai-kak deitutako kale bilkuran gaz-

te bat atxilotu zuen Ertzaintzak. Gaztea aske laga zuten eguen arra-tsaldean. Testu hau idazterako orduan, Osoko Bilkura egitekoa zen Arrasateko Udalean, bezpe-rako gertaeren gainean eztabai-datzeko. Astean, hainbat ekimen izan dira Debagoieneko herrietan, Haikako 15 kideren atxiloketa-gatik protesta egiteko. Bergaran eta Arrasaten kale agerraldiak izan dira. /3

Gure Bailarako Patxarana



BERTAKOIA, NATURALA.

Nafarroa etorbidea, 23 M1 pabilioia • ARRASATE • 943 79 10 69

Mundukide

Debagoienera, esperientziak elkar trukatzera

UBANE MADERA

Itsaso zabala zeharkatu eta 13 lagun Hego Amerikatik gure bailara txiki honetara etorri dira, Debagoienera. Ekuador, El Salvador, Guatemala, Kolonbia, Venezuela eta Brasilekoak dira, eta Mundukide Fundazioaren bekadun etorri dira. Gurean egongo dira martxo osoan, komunitate garapenerako esperientziak elkar trukatzera.

Duela pare bat urte, Mundukide Fundazioak Truke Programa jarri zuen abian, eta ekimen hori dela-eta etorri dira 13 hego-amerikarrak. Guztiak ere Hirugarren Munduko garapen komunitarioan konprometitutako pertsona esanguratsuak dira; horrela, hemendik jasotako ezagutzak han abiaraziko dituzte. Halaxe adierazi digu Jon Sarasuak, Mundukide Fundazioko kideak: "Hona etorriko direnak hautatzeko orduan, hainbat irizpide hartzen ditugu kontuan: esaterako, esperientzia komunitario interesgarria izatea; protagonis-

modun jendea izatea, hemen ikasitakoa han aplikatu ahal izateko; eta euren esperientziaren sakontasuna".

Hirurogei lagun artean aukeratu dituzte gurean dauden 13ak: "Pena da, beti ere oso jende interesgarria kanpoan geratu izan delako". Hemen dauden bitartean, gainera, denetarik izango dute egiteko: ikastaroak Lanki eta Saiolanen eskutik; esperientzia kooperatiboaren errealitate sozial, ekonomiko eta antolaketaren ezagutza jasotzeko zenbait bisita eta elkarrizketa (Fagor, Euskadiko Kutxa, Eroski...); MUREkin eta Arizmendirekin ere izango dituzte hartu-emanak, hezkuntza arloko kooperatiben errealitateaz jabetzeko ekimenak eginez... eta beste makina bat ekintza.

Hori guztia, esan bezala, Mundukide Fundazioak gonbidatuta eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko zenbait ikasle-aren laguntzarekin egingo dute.

Debagoieneko hainbat gobernuz kanpoko erakunderen ekimenez jaio zen Mundukide Fun-

dazioa 1998an: Eskoriatzako Atxorrotx, Aretxabaletako Hiruatx, Arrasateko Harreman, Oñatiko Banoia, Antzuolako Hirugarren Munduko Taldea eta Bergarako Fisc erakundeek eta MCCk sinatu zuten hitzarmena. Hauexek dira helburuak: herrialde pobreei, lan arloan, elkartasuna adieraztea, eta elkartasun horren bitartez, esperientzia kooperatiboaren baliabideak, ezagutzak eta garapena hantxe bultzatzea.

Horretarako, hiru lan ildo nagusi ditu Mundukidek: eskualdeko garapen integrala, interkooperazioa Hirugarren Munduko kooperatibekin eta esperientzia komunitarioen trukaketa edo Truke Programa.

Azken lan ildo horren barruan sartzen dira bekadun etorritako 13 lagunak: "Akaso hauxe da Mundukideren ekimene bereziena".

TRUKE PROGRAMA

Lankidetzan oinarritzen da Mundukideren Truke Programa, eta



Ekuador, El Salvador, Guatemala, Kolonbia, Venezuela eta Brasilekoak dira, eta

lau helburu ditu: batetik, Arrasateko esperientzia kooperatiboa bekadunei jakinaraztea, Mondragon Unibertsitatean komunitateen garapenerako hegoamerikarrek dituzten bizipenak aditzera ematea. Bestetik, kooperatiben

gizarte-inguruneari Hirugarren Munduko ekarpen eta errealitate komunitarioak zuzenean jakinaraztea. Azkenik, eta bisitariei interes eta arduren arabera, erakunde kooperatiboekin lankidetzako harremanak hastea.

Marcelino Joao Soares


Brasil

Cooperatiba de Asentamiento del Movimiento sin Tierra taldekoa da. 52 bazkide dira kooperatiban, eta nekazariekin egiten dute lan. Milioi bat lagun baino gehiagoren beharrak eta eskubideak defendatzeko egiten dute lan, Brasilgo 23 estatutan.

"Hemengo esperientziak jabetu gura dugu, kooperatiba-esperientziak elkar trukatzeko. Gure aurreneko esperientzia da, eta orain arte izandakoa ikusi eta hemendik jaso-

takoaren arabera, oso inpresio ona dut.

Egia da gure errealitatea desberdina dela, baina uste dugu hemen dituzuen esperientzia asko aprobetxatu eta han erabili ahal izango ditugula, gure errealitatean sartu eta garatzeko".



"Hemen dituzuen esperientzia asko aprobetxatu eta han erabili ahal izango ditugu"

Martha Velasco

Bolivia

Timusi arroan garapen eutsigarria bultzatzeko programan lan egiten du, FEDECARES taldearen barruan. Estatistiken arabera, probintziarik pobreenan: Muñecas probintzian, hain zuzen ere. Guztiz bakartuta dagoen gunea da, eta oinarriko azpiegiturak garatzeko lanean dihardu FEDECARESek.

"Oso informazio urria dugu Euskal Herriaren eta kooperatibismoaren gaine-

an, baina asko poztu nintzen hona nirekin errela jakin nuenean; han komertzializazio bultzatzen gabilta orain, erakundeak antolatzen. Zailtasun ugari ditugu, ezagutza urria dugulako eta hango gizartearen idiosinkrasia aldatzeko oso zaila delako.



"Hemen ikasiko duguna oso erabilgarria izango da han. Eta kooperatiba modua ere ezarri ahal izango da"

Bailaran, labur

PROTESTA EKITALDIAK

Arrasateko alkate ohia erasotua izan zen Haikaren aldeko manifestazioan

Haika erakundeko kideen atxiloketengatik protesta egiteko, eguazten iluntzean Arrasaten izandako manifestazioan, kaputxadun batek eraso egin zion Arrasateko alkate izandako Jose Maria Loitiri. Kaputxadunak bultza egin eta lurrera jausi zen EAJko zinegotzi eta bozeramailea. Horren ondorioz, zauri arinak jasan zituen eskumako erpu-ruan. Haikak deitutako kale agerraldian gazte bat atxilotu zuen Ertzaintzak, baina eguenean aske geratu zen. Aste-an, hainbat ekimen antolatu dira bailaran, Haikako 15 kide-en atxiloketa dela eta. Eguazten eguerdi eta iluntzean kale agerraldiak egin zituzten Arrasaten eta Bergaran. Horrez gain, Haika erakundeak grebarako deia egin zuen eguaz-tenarako, eta askotariko erantzuna izan zuen: batxilergo-ko ikastetxe askotan greba egin zuten; unibertsitatean, oste-
ra, ez zen grebarik izan. Egubakoitzerako borroka eta gre-
ba eguna deituta zuten Haikakoek. Manifestazioak iragarrita
zeuden Bergaran, eguerdi eta iluntzerako. /ENEKO AZKARATE

HEDABIDEAK

Goiena kooperatibak kudeatuko ditu Debagoieneko herri komunikabideak

Debagoieneko euskara elkarteek Goiena kooperatibaren esku utzi dituzte eurek sortu eta orain arte kudeatu dituzten herri hedabideak. Astelehenean sinatu zuten lan-
kide-tza hitzarmena Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta
bailarako euskara elkarteek Bergarako kultura etxean. Lan-
kide-tza hitzarmen hori Debagoieneko eta Aramaioko bede-
ratzi euskara elkarteek sinatu dute. Guztien artean, 3.000
bazkide dituzte. Hitzarmenari esker, Goiena kooperatiba
herri komunikabideetan dagoen talderik sendoena bihur-
tu da. Izan ere, eskualde osorako aldizkari bat du, *Goien-
karia*, astero 20.000 alde banatzen dituen. Horrekin bate-
ra, sei herri aldizkari egiten ditu (*Aretxagazeta*, *Arrasate
Press*, *Goibekokale*, *Kontuola*, *Zer Barri?* eta *Berrigara*),
eskualde telebista bat (Goiena Telebista) eta baita irrati
bat ere (Arrasate Irratia). /MONIKA BELASTEGI

ENPRESAK

Euskadiko Kutzak 22 mila milioi pezeta irabazi zituen joan den urtean

Euskadiko Kutzak 22.000 milioi pezetako irabaziak izan zituen iaz, aurreko jardunaldian baino bi mila milioi pezeta inguru gehiago. Bestalde, hemendik eta 2004. urte-
ra bitartean, Euskal Herri-kanpo 110 bulego edukitze-
ko asmoa azaldu dute erakundeko buruek. Guztira, lau
urte barru, 357 bulego edukitzea aurrez ikusi dute; horie-
tatik, 247 Euskal Herrian. Oraingo urteari dagokionez, hiru
bulego berri zabalduko dituzte Euskal Herrian, bi Erri-
oxan eta 13 Gaztela-Leonen. /E.A.

MARTXOAK 8

Era askotako ekitaldiak Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan

Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan, Arra-
sateko Udalak emakume eta gizonezkoen arteko auke-
ra ezberdintasunen gaineko prentsa oharra bidali du *Goien-
kariara*. Hezkuntzan, politikan, lanean eta gizarteko bes-
te hainbat arlotan emakume eta gizonezkoen arteko
ezberdintasunak azpimarratzeaz gain, horiei aurre egite-
ko hainbat ekimen bultzatzea proposatzen du. Besteak bes-
te, arlo pribatuan elkarkidetzaren bermatzea, bizitzaren bisor-
kuntzak dakartzan kostuak gizarteratzea, eskola hezitzaile-
a bultzatzea, lanean eta arlo publikoan aukera berdintasuna
betetzea, eta emakumearen beharrak aintzat hartzea. Bes-
talde, ESK sindikatuak Bergarako Geysen Gasteen enpre-
sako lan egoeraren gaineko lan bat ere helarazi digu. Sin-
dikatu horren esanetan, Geysen-en diskriminatu egiten dute,
ez kontratu kopuruari dagokionez (210 langiletik, 140 gizo-
nezkoak dira eta 131 emakumeak), baina bai lan motari,
soldatei eta ardurei begiratuz gero: behe mailako lanetan
emakume gehiago dago (96) gizonezko baino (27). /E.A.



URTEURRENA

Telesforo Monzon politikari bergararra hil zela hogeitau urte


Gaur, egubakoitza, hogeitau urte
betetzen dira Telesforo Mon-
zon abertzale eta politikari ber-
gararra hil zela. Bizitza osoa eman
zion politikari Monzonek. Nahiz
eta gehienok, batez ere, politi-
kan egin zuen lanagatik ezagutu,
oso gizon polifazetikoa zen: oler-
karia, antzerkigilea, artikulugile-
lea... Hainbat abesti ezagunen
egilea ere badugu; hala nola, *Lepo-
an hartu ta segi...*, *Aita kartzelan
dago* edo *Itziarren semea*.

1931n, Errepublika aldarri-
katu zenean, zinegotzi hautatu
zuten Bergaran, EAJko ordezkari.
Ogasun eta Gobernazio batzor-
deetako burua izan zen. Urte
hartan bertan hasi zen han
eta hemen hitzaldiak egin-
ten. Sekulako ospea zuen hiz-
lari; erraztasun handia zuen berba
egiteko. Jose Luis Elkoro
Bergarako alkate ohiak ondo ezagutu
zuen Monzon, eta halaxe
gogoratzen du: "Ideologo ezin
hobea zen, eta bere artiku-
luek bete-betean ematen
zuten diana".

Nahiz eta gehienok politikan egin zuen lanagatik ezagutu, gizon polifazetikoa zen: olerkaria, antzerkigilea, artikulugilea...

1977an askatasunaren martxa egin zen, eta martxa horretan, hain zuzen ere, bueltatu zen Bergarara lehen aldiz 40 urtean.

Espainiako gerra piztu zenean, erbestera ihes egin behar izan zuen; besteak beste, Mexikon egon zen bost bat urtean, Maria Josefa Ganuza emaztearekin. Handik, Donibane Lohizunera joan ziren, eta urteetan bizi izan ziren han-txe. 1977an askatasunaren martxa egin zen, eta martxa horretan, hain zuzen ere, bueltatu zen Bergarara lehen aldiz 40 urtean. Harrera izugarria egin zion herriari. Urte hartan bertan EAJ-tik bota zuten, eta hurrengo urtean, berriz, Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuen. HBren ordezkari, Espainiako Legebiltzarreko diputatu eta Gasteizko legebiltzarkide izan zen. 1981eko martxoaren 9an hil zen, Baionako ospitalean. Hileta elizkizunak Bergarako San Pedro parrokiaren inguruan egin ziren; jendetza izugarria izan zen orduko hartan ere.



dekadun etorri dira.

USAN EMBERA

Jon Sarasua

Truke Programako arduraduna

Zergatik Truke Programa? Zer fruitu eman du orain arte?

Kontua da egoerari buelta ematea. Lankidetzaz ez da bakarrik hemendik dirua bidaltzea edo hemendik erakustea. Gure izaera aldatu behar dugu, gizartea bera, alegia. Hortaz, eredu hori hartuta, egin dezagun trukea: ea guk zer dugun erakusteko, eta zer dugun eurengandik ikasteko. Uste dut, gainera, planteamendua egokia dela. Bestelako GKEetatik oso egokia dela esan digute. Eta iazko esperientziaren balorazioa, esaterako, oso ona izan da. Bai eurek asko ikasi zutelako, bai eta gure aldetik unibertsitatean izandako esperientzia ere oso ona izan delako. Oro har, oso balorazio positiboa da.

Truke horretan, zer jasotzen dugu eurengandik?

Gauza asko. Euren esperientzia oso indartsua da. Jeneralean, esperientzia komunitario edo kooperatiboetan lan egiten duten pertsonak dira, eta esperientzia komunitario hori jasotzen dugu; askotan, gureak baino sakonagoak izaten dira, gainera. Garapena ulertzeko moduak, lurrarekiko errespetua ulertzeko moduak, pobretasunak dituen zenbait balio eta kontatu ezin diren beste mila kontu ere jasotzen ditugu. Ikaragarria da, bai ikasle aldetik, bai irakasle aldetik, bai eta herrietan antolatzen ditugun hitzaldi zabaletan ere... Uste dut gehiago dela guk jasotzen duguna eurek jasotzen dutena baino.

"Guk jasotzen duguna ikaragarria da, bai ikasle aldetik, bai irakasle aldetik, bai eta herrietan antolatzen ditugun hitzaldi zabaletan ere"

BERGARA

AUTOBUS GELTOKIA

Pesa autobus konpainiak itxi egin du Bergarako bulegoa

Debagoieneko jarduera guztia Arrasateko Musakola auzoan bildu du

MONIKA BELASTEGI

Geltokiko bulegoa itxi egin du Pesak. Geltokia mantendu egingo dute, baina aurrerantzean ez da txartelak erosi edo kontsultarako gunerik izango. Debagoieneko jardun administratiboa Arrasateko Musakola auzoan zentralizatu dute.

Joan den martxoaren lehen itxi zuen Pesa autobus konpainiak Ibargarai kalean duen bulegoa. Geltokiak leku berean segituko du, baina kontsultarako eta txartelak erosteko bulegorik ez da izango aurrerantzean.

Pesa konpainiako iturrien arabera, Debagoieneko jarduera guztia Arrasaten oinarrituko du, Musakola auzoko Pereda eraikinean, hain zuzen ere.

Duela bi urte ekin zion Pesak Debagoieneko jarduera guztia Arrasaten biltzeko planari. Instalazioetan hainbat egokitzapen egin ostean, urtarrilean, tailetretako langileak Peredara joan ziren. Prozesua amaitzeko, Bergaran lan egiten zuten adminis-



Argazkiko kaxeta erabiltzen zuen Pesak bulego gisa.

MONIKA BELASTEGI

trazioko langileak lekuz aldatzea baino ez zen geratzen. Martxoaren lehen utzi zuten Ibargarai kaleko bulegoa. Baina, esan bezala, geltokia mantendu egingo dute.

GELTOKI BERRIA

Udala "geltoki garrantzitsua" egiteko asmoa aztertzen ari da, Victoriano Gallastegi alkatearen

arabera. Duela urte batzuk, Torrekua parean geltoki berria egiteko proiektua egin, baina gero atzera bota zuten.

Hala ere, asmoak aurrera darrai. Geltoki berria Ibargarai kalean, (oraingo geltokitik hurbil) egingo dutela aurreratu du alkateak, nahiz eta oraindik toki zehatza jakin ez.

ANTZUOLA

KULTUR ETXEA

Kultura etxea egiteko proiektua onartu da udalean

Gaztetxea, jubilatuen taberna, gimnasioa eta antzokia egingo dituzte hantxe, besteak beste

AINTZANE IRIZAR

Martxoaren 1eko osoko bilkuran onartu zuten Kultura Etxe berria egiteko proiektua. Gurasoen elkartearen egingo dute, garai batean maristena izandako eraikinean. Sei solairu izango ditu guztira, sotoa eta beheko solairua barne.

Sotoan biltegiak, komunak eta dutxak egongo dira, aldamean dagoen plaza gorrian kirola egiten dutenendako. Beheko solairuan, honako lokalak egokituko dituzte: gaztetxea, gimnasioa eta hainbat gela. Lehenengo solairuan liburutegia eta jubilatuen taberna egongo dira, besteak beste. Bigarrenean, berriz, antzokia eta hainbat ekintzetarako erabili ahal izango den lokala. Hainbat tailer egokituko dituzte hirugarren solairuan, baita kamerino funtzioa beteko duten bi alda-

gela ere. Laugarren solairuan oraingoz, ez dute ezer egin aurrerago, beharizanen arabera ikusiko dute zer egin aurrerago solairu horretan. Igoerak ere egingo dute. 229 milioi aurrekontua du proiektu horretan eta datorren hileko osoko bilkuran onartuko dute, ziurrenik urteko aurrekontuen barne.

Duela sei bat urte egin zuten lehendabiziko proiektua. Oraingo hartan, herritarrei euren proposamen eta beharizanak aztertzea eskatu zitzaizkien. Baina, azkenik, zuzen zuzen erabaki ugari zituela eta, lehengoa al-

batera laga, eta proiektua berria egin duten hori da, hain zuzen, onartu berri dutenak.

Orain, gaztetxea, jubilatuen taberna eta besteak beste guztiendako behar behineko lokalak topatu eta egokitzen dihardute, lanek irauten duten bitartean aurrerago egin beharko baitute. Lanak esleitu eta aurreratik lanekin behar behar tea espero dute Udala arduradunek.

Zertzelada

Maristena izandako eraikinean egingo dute Kultur Etxea; orain, hainbat dauden gaztetxe, jubilatuen eta bestelako guztiendako lokalak topatu eta egokitzen dihardute

LEINTZ GATZAGA

ISTRIPUA



Kamioia irauli zen Arlabanen.

Istripu ikusgarria gertatu zen eguazten eguerdian Arlabanen. Fagorreko hozkailuak zeramatzen Portugaleko matrikuladun trailer bat irauli eta erreka zulara jausi zen Arlabaneko gainetik gertu. Kamioi gidariari ez zitzaion ezer larririk gertatu, zauri arin batzuk baino ez. Hala ere, istripua ikusgarria izan zen eta kamioia zulotik ateratzeko bost ordu behar izan zituzten. Horretarako, Arlaban mendatea itxita egon zen eguazten gaueko 21:00etatik eguazten goizaldera arte. Kamioiak 9.000 kiloko karga zeraman. Ertzaintzak Goienkariari adierazi dionez, kamioia ez zihuan oso azkar, igotzen baizihuan, eta karga ere ez zen gehiegizkoa. /ENEKO AZKARATE

ELGETA

GAZTETXEAREN BOSGARREN URTEURRENA

Gaztetxea herriko kulturgintzaren zati garrantzitsu bilakatu da

Jaia eta hausnarketa, aurrera indartsu jarraitzeko

IBAN ARANTZABAL

Esan dezagun, Elgetako gaztetxea ez dela gaztetxe bat gehiago bakarrik. Lan kultural berezia egin du, eta herriko kultura erreferentzia bihurtu da. 150 musika taldetik gora egon dira 1996ko martxoaren 19an okupatu zutenetik. Antzerkiak, eztabaidak, hitzaldiak... hori guztia gazte sentitzen diren herritar guztiarentzat.

Berdintasunaren aldeko aste akaberarekin emango zaio hasiera ekitaldi zaparradari. Martxoaren 8an, Emakume arabiarra dokumentala emango da, eta 9an, kontzertu erakargarria izango dugu gaztetxean: Txuma Murugarren (Sasoi ilunak ohia) izango da zuzen-zuzenean. Asteburu horri amaiera emateko, hitzaldia egingo du Egizanez domekan: *Emakumea lan munduan*.

16an, 21:30etik aurrera: *Ardi beltza*-ko bideo polemikoa.

Elgetako gaztetxeak beti izan du umeekin hartu-emanazateko eta nolabaiteko heziketa pun-



Dusminguets talde katalana Gaztetxean izatea sekulako luxua da.

tu hori emateko beharra, eta horren harira, 17an umeen eguna izango da. "Txolloa" gurasoendako!

Gaztetxean aspaldian harren batek egiten du zirri eta har hori gaintzeko batzarra egingo da inguruko gaztetxeekin. Sora-

luzekoak eta Bergarakoak joko dira. Gaia: *Zer da gaztetxea?*

Egunik onena, hilaren 24a, bazkaria, jokoak... eta gazte luxuzko kontzertua Dusminguets katalanen eskutik (musika mestizoa) eta CCP reaganpatxanga, ska, saltsa...

ARRASATE

VILLA DE BILBAO MUSIKA LEHIAKETA

Anger / Musika taldea

“Jendea nahiko itxia da. Modan dagoena entzuten dute”

UBANE MADERA

1997ko irailean sortu zen Anger. Disko bat dute “labe-an”, egun argia ikusteko zain. DDT disko etxearekin aterako dute, **Zuhaitz lehorra ereiten izenburuarekin.**

Bitartean, baina, ezin geldi egon eta 2000. urtean Euskadi Gaztearen lehiaketan parte hartu zuten, bigarren postua eskuratuz. Aurten, berriz, “Villa de Bilbao” lehiaketan parte hartzen ari dira, eta oraingoz, metal musikaren barruan aurkeztu diren 300 talderen artean, lehenengo hamabien artean sailkatzea lortu dute. Aurkeztutako taldeak, gainera, Europa osotik datoz.

Ekainek baxua jotzen du; Aitorrek, bateria. Beñat eta Alberto gitarristak dira eta Harkaitz arduratzen da abestien letrak egin eta abesteaz. Hara zer kontatu diguten:
— **Zein musika egiten**

duzue?

— Metal motakoa, beste barik.

— **Zer gura duzue lortu zuen hitzekin?**

— Jendeak pentsa dezala gura dugu. Eta jeneralean, gizartea kritikatzan dugu. Hitzak euskaraz dira guztiak.

— **Zein lanekin joan zarete Bilbora?**

— Diskoko hiru abesti eraman ditugu: Zure barrua, Ezintasun aurpegiak eta Zuhaitz lehorra ereiten.

— **Eta orain arte, behintzat, badirudi gustuko izan dituztela...**

— Ba, bai; baina egia esan, ez dakigu zergatik. Ez dakigu zein den gu epaimahaiarendako gustukoak izateko formula, baina Euskal Herriatik bakarrik lau talde sailkatu gara... Hurrengo baten, galdetu egingo diegu... je je je...

— **Beste hamabirekin batera sailkatu zarete; nahiz eta ez irabazi, ez da marka**



Anger taldeko kideak.

MARIJO DEGRACIAS

txarra...

— Ez, jakina, eta gure izena zabaltzeko balio izango du, orain arte ez gara-eta askorik zabaldu. Deba bailaran ibili izan gara, bereziki. Euskadi Gazteari esker, Euskal Herrian

gure izena apurtxo bat ezaguturazi genuen...

— **Musikatik bizitzea gustatuko litzazueke?**

— Zailtasun moduan hartzen dugu.

— **Eta zelan ikusten**

duzue etorkizuna?

— Ondo. Kontua ez da pentsatzea ea musikatik bizi ahal izango garen edo lehiaketan sailkatuko garen... Gauzak datozen moduan hartzen ditugu.

— **Jendeak zelan hartzen zaituzte?**

— Gure ustez, jendea nahiko itxia da. Boladan dagoena entzuten dute; eta metalaren kasuan, Su ta Gar edo antzeko talderen bat ez bada, eta norbait txilioka entzuten badute, akabo. Ez da matxistak garelako, baina hori, bereziki, neskek egiten dute. Hemendik kanpo ez da hori gertatzen. Edo hemen bertan ere, kanpoko taldeekin, esaterako, jendea gustura asko dago, baina hemengoekin ez da gauza bera gertatzen. Akaso, ez garelako ezagunak edo...

— **Zerbait gaineratzea gura baduzue...**

— Ba, ea jendea animatzen den gu entzutera...

ARETXABALETA

Araba ibilbideko lanak direla eta, errepidea itxita maiatza arte

AMAGOIA LASAGABASTER

Duela hilabete inguru hasi ziren Araba ibilbidetik Ederlaneko zubiraino dagoen tartean lanak egiten. Gune horretan espaloia jartzea erabaki zuen udalak. Horretarako, baina, espaloiak errepideari kenduko dion tokia beste aldetik jarri beharko diote.

Errepidearen ezkerrean porlanezko paretak zeuden, eta azken egunotan paret horiek bota eta berriak eraikitzen dihardute metro batzuk atzerago. Horrela, errepidea zabalduko da.

Lanak direla eta, Araba ibilbideko gune hori autoendako itxita dago. Orain, zirkulazioa Ibarberriko zubitik Ederlanera doan zubiraino desbideratu dute. Lanak datorren ekainean bukatuko dituzte.

ELIZA ITXIKO DA DOMEKAN

Domekan esango dute azken meza parrokiari. Barrua txukuntzen hasiko direla eta, martxoaren 12tik aurrera, ohiko mezak mojen komentuan esango dituzte. Hiletak, asteburuko mezak eta elizkizun bereziak, berriz, Mitarte kaleko etxabe baten egingo dituzte.

ESKORIATZA

GEILAON INAUGURAZIOA

Ubide eta aparkaleku berriak inauguratu dituzte Geilaon

Eskoriatza eta Aretxabaletako alkateak bertan

IÑIGO BIAIN

Joan zen igandea egun handitzat jo dezakegu Geilaoko elizatearentzat. Izan ere, euren hainbat eskakizun gauzatu ziren igandean, edo hobe esanda, igandean inauguratu egin zituzten. Alde batetik, ura Geilaoraino eraman dute, Galartzako ur biltegian egin zutelarik inaugurazioa, herriko alkateak ubidea zabaldu zuenean. Ondoren, Geilaon bertan, eliza ondoko aparkaleku berria inau-

guratu eta bedeinkatu zuten, gero elizateko parrokiari berrituari txanda heldu zitzaizolarik.

Eliza mezarekin inauguratu ondoren luntxa izan zen, auzokoentzako elizari atxikita egin duten lokalean. Han bildutako guztiak (Aretxabaleta, Eskoriatza eta Geilaoko alkateak, hainbat zinegotzi, Foru Aldundiko ordezkaria, eta, batez ere, auzotarrak) euren poztasuna agertu zuten, aspaldiko eskaerak azkenik gauzatu baitira Geilaorentzat.



Geilaoko alkateak, Joseba Urkiak, inauguratu zuen iturria.

IÑIGO BIAIN

ARAMAIO

MAPA KARTOGRAFIKOA

Herri barrutiko mapa kartografikoa egingo dute

Bi milioiko aurrekontua dago horretarako

UBANE MADERA

Eusko Jaurlaritzak bi milioi peze-ta pasatxo emango dizkio udalari herriko mapa kartografikoa egiteko. Halaxe jakinarazi zuten joan den osoko bilkuran. Orain, udalak beste hainbeste jarriko du, eta horrekin egingo dute mapa. Herriaren toponimia berrikusiko dute, eta izen guztiak Euskaltzaindiaren arauetara egokitu dituzte. Errepide, bide eta bidexkak ere berrikusiko dituzte, informazioa eguneratzeko.

Eta horrekin batera, errekek, errekaetoak eta mendiak ere definituko dira, eta baita autobus bideak eta landaretza ere.

EMAKUMEEN ASTEA

Bestalde, oraingo astean martxoaren 8a izanda, herrian makina bat ekitaldi egin dira udalak antolatuta eta Iturzuri Emakume Elkarteak lagunduta. Hitzaldiak, antzerki-saioa eta askaria izan dira. Gaur, bideo emanaldia egingo da udaltxean: *Como ser mujer y no morir en el intento* filma emango da.

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Gizonak
Emakumeak

Jantziak

Ibai-arteren
bazkide

Zabalik

RUFINA
OLASAGASTIAgur jaunak,
agur andrak

Joan den azaroan, Arrasateko EKIN emakume elkarteak euskara eta sexismoari buruz antolatutako hitzaldi batean izan nintzen. Gasteiztik etorritako Begoña Muruagag egin zuen hitzaldia.

Uste ohi dugu euskarak errespetuz tratatzen dituela gizonak eta emakumeak, bakoitzaren nortasuna onartuz, *gurasoak* esaten denean eta ez "padres", *seme-alabak* eta ez "hijos", *ekarri diat* mutilari eta *ekarri dinat* neskeri.

Baina, hori horrela izanik, ez da beti hala gertatzen erabileran. Hizlariak hainbat adibide eman zituen, orain aipatuko ez ditugunak.

Baina, bai azaldu nahi nuke emakume entzuleetako batek hitzaldi horretan esandakoa. Emakume hark adierazi zuen hainbat ekitaldi publikoren bukaeran *Agur jaunak* abestutzean, jende guztia zutitzen denean, bera eserita gelditzen dela. Ingurukoek galdetzen diotenean ea zergatik ez den zutitzen, berak beti gauza bera diola: "*Agur jaunak* abesten dute; ni ez naiz jaun bat, andra bat baizik. Beraz, ez doa niretzat".

Berak nabarmen jarri zuen ordu arte itzalean neukan zerbait, alegia, *Agur jaunak* abesten dugunean elkarri begirunea adieraziz, desio horretan gizonak bakarrik daudela, emakumerik ez dela ageri.


Kasu horretan, emakumeak eta gizonak garelako onartuta, Euskal Herriko eta kanpoko abesbatza, abes talde, otxote eta herri-tar guztiei proposatzen diet aurrerantzean elkarri azken agurra eman nahi diotenean honela abestutzea:

Agur jaunak,
andrak agur,
agur t'ardi.
Denak Jainkoak
eginak gire
zuek eta bai gu ere.
Agur andrak, agur
Agur jaunak,
Hemen gire.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



Dispertsioa tortura da

Joxe Migel Gaztelu eta Jose Luis Erostegi 1997ko uztailean atxilotu zituen Guardia Civilak. Atxiloteta uanean torturak jasandakoak eta gaur egun etxetik 400 kilometrora dispertsatuta dauden preso politikoko bergararra eta antzuolarra dira hurrenez hurren.

Dispertsioari aurre eginez, ehunka lagun eta senide mugitzen dira Euskal Herriatik espainiar eta frantziar espetxeetara asteburuero. Pasa den asteburuan (otsailaren 24an) aipatu ditugun preso politikoko hauen senideek bidaia horri ekin zioten Alcalako espetxeraino. Bidaia horretan ondorengo gertaerak jasan behar izan zituzten:

Madrilera bidean dagoen ohiko atsendenleku batean Guardia Civila hainbat kotxe miatzen ari zen, tartean zegoen Alcalara bisitan zihoaztenena; miaketa inongo arazorik gabe pasa ondoren, joaten utzi zieten. Aurrerago, ordea, Guardia Civilak jarritako errepide kontrolean geratu zituzten eta hortxe hasi zen senide hauen amesgaiztoa. Nortasun agiriak eskatu ostean, eta hauek Guardia Civilaren menpe zeudela, "eskoltatu" egin zituzten azken hauek nahi zuten toki ilun batera eramanez. Ordurako eraman zituzten lekuan zain zuten beste Guardia Civil mordoxka bat ere. Senideak kotxetik jaitsiarazi ondoren, autoa berriz miatu eta senideak ere goitik behera katxeatu zituzten, inpunitate osoz. Hori gutxi balitz, Molargo kuartelera eraman zituzten; bertan, irainduak izan ziren eta

banan-banango galdeketa jasan behar izan zuten; gainera, senide bat biluzarazi zuten. Azaldu dugun hori guztia 5 orduz luzatu zen amesgaiztoa izan zen, eta Alcalara joanagatik ere, goian aipatu bi preso hauek bisitarik gabe utzi zituzten.

Lerro hauen bidez salatu nahi dugu senideek egin behar dituzten kilometroak nahikoa izan ez, eta gainera, honelako bahiketarako jasan behar izaten dituztela dispertsioaren eraginez.

Bukatzeko, dispertsioaren aurka eta gure herriaren askatasunaren alde borrokatzen jarraitzeko deia luzatzen dugu.

URKO ALTZERREKA IRIZAR

Bergara eta Antzuolako Amnistiaren Aldeko
KomiteakEa behingoz elkar
konpontzen garen

Industrializazioarekin batera, ekoizpen moduetan eta familia barneko harremanetan aldaketak gertatu ziren.

Funtsean etxekoa zen ekoizpenetik, oinarriko beharrak asetzeko zen ekoizpenetik, ondasun eta zerbitzuak kanpotartu eta horien truke ordaintzera pasatu ziren.

Industrializazioaren hastapenetan, eskulana erabiltzen zuten, ez bakarrik gizonezkoena, baita emakumezkoena eta umeena ere; baina laster, krisiarekin batera, gizonak, emakumeak eurentzat arriskua balira bezala ikusten hasi ziren, ugazabek etekin handiagoa ateratzen zutelako andrazkoekin.

Krisi horren ondoren, gizonen antolatuta, gizonen eskubideak defendatzeko sortu berriak ziren sindikatuek, borroka gogorra hasi zuten kapitalaren aurka emakumeen lanez jabetzeko, euren ustez andreak zirelako soldaten murrizketa etengabearen eragileak, baita ugalketa eta etxeko ongizatearen arduradunak. Horrela, emakumea lan esparrutik guztiz kanporatu zuten.

Ordutik, emakumezkoen eskulanaren erabilera, interes politikoko eta ekonomikoaren arabera izan da, esaterako, gerra garaietako emakumeen erabilera handia, ezkontutako emakumeei lan egiteko debekua, gizonen kontrolatzea emakumeen sarrera lan munduan eta euren soldata (ez dugu ahaztu behar gizonen negoziatzen zutuztela lan akordioak), eta abar. Aldaketa ekonomikoa eta sozialekin batera, errolen bereizketan (gizona ala emakumea izatearen arabera

balio eta aukera desberdinak izatea) oinarritutako eraketa sozial eta ideologikoa gertatu zen, bateratzea ezinezkoa ematen duen errol bereizketan oinarrituta hain zuzen ere. Balio eta aukera horien arabera ez jokatzeko gogor zigortuta dago, moralak kondemnatu ko ditu gai den gizon batek lanik ez egitea edo bere familia aurrera ez ateratzea, zehar emakume batek bere seme-alabak ez zaituzte erabakitzea. 60ko hamarkada aldera emakumea lan munduan sartzen hasi zen motel, "gizonezkoen mundua"-ren aukerak bere gain hartuz, baina bere errolaren ezarpenak inola ere baztertu gabe, emakumeari erruduntasuna, estresa eta egonkortasuna eragin ziolarik horrek. Ezin dugu ahaztu andreak etxean egiten dituzten beharrezko baldintza oso gogorak dituztela, eta ezin direla gaur egungo lan eskariaren arabera moldatu. Adibidez: platerak bihar garbitzeko utzi daitezke, baina ezinezkoa da gure seme-alaben bazkaria edo afaria atzeratzea, eta gure agureak sendagilearenera geroago eramatea; hori dela eta, horrelako betebeharrak egiten dituzten pertsonak, egiteko horiek euren lanarekin bateratzeko arazoa izan ohi dituzte.

Emakundek egindako ikerketa batek arabera, lana duten emakumezkoek, gizonazkoek ez bezala, 3 orduko etxeko lanak dute gainera, gehienbat asteburuetan egiten beharrek. Beraz, urtetan lan munduan andreen sarrera sistematikoki gehitzen ibili ostean, etxeko beharren gizon eta emakumeen arteko banaketa desegokia ez da inork zalantzan jarri eta bere horretan dago. Ez da berdintasunik egongo, gizonazkoak, lan munduan, familiaren zainketa eta etxeko lanen benetako arduradunak izan dauden artean.

Ez ditugu aukera berberak izango, gizonak, etxeko lana osagarritzat hartzen duten artean, eta ez, gizon eta emakumeen esperientziarako beharrezkotzat. Ezta ere, Estatuak, gizartearen behar berriak kontuan hartu eta gizon eta emakumeen lana eta familiako betebeharrak bateratzeko zerbitzuak (haurtzaindegi gehiago, adinekoentzako egoitzak, eta abar) sortzen ez dituen artean, bikoteak egin behar horiek bere gain hartu ezin dituen artean.

Modu horretan bakarrik lortuko dugun andreak gizon guztion sarrera gizartean nahitaez lanean, aukera berberekin.

ESK
Arrasate

Gutun gehiago 8. orrialdean

Olatz eta Patri

MIKEL ARROLA



Eztabaida

Ezin da ukatu feminismoak egi- ten duen lana emakumeen eta gizonezkoen aukeren arteko berdintasunera bidean. Hala ere, mugimendu horrek garai hobeak bizi izan ditu, azkenaldian, batzuek

zalantzan ere jarri baitute, eta sindikatu, alderdi politiko, erakunde publiko eta hainbat giza taldek hartu dute ardura berdintasunaren alde egiteko. Edozelan ere, oraindik urruti gaude sexuen arteko berdintasun

errealetik. Oraingo astean, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Sindikatuek, esaterako, salatu dute emakumeek "enplegua faltan eta lana soberan" dutela.

Feminismoa beharrezkoa da berdintasuna lortzeko?

Oraindik urritik gaude berdintasun errealetik



LARRAITZ UGARTE
Abokatua

Bai, feminista naiz. Norbaitek esango dit: baina hori ez da matxismoaren antonimoa, eta beraz, berau bezain txarra? Ezetz erantzun beharrean aurkitzen naiz. Feminismoa, pentsamendu eta mugimendu gisa, beharrezkoa izan da berdintasunaren aldarrikapenean sakontzeko. Aldaketa sozial, politikoa edo juridikoa eman ahal izateko, feminismoak akuilu lana egin izan du, eta baita garaipen anitz lortu ere.

Baina, oraindik orain, berdintasun errealetik urruti gaude. Lanean, emakumearen diskriminazioa nabaria da; espazio publikoak ez ditugu guztiz irabazi; hezkuntzan ez dira berdintasuneko balore eta jokoak bultzatzen; tratatu txar eta eraso sexistak eguneroko ogi dira; erakunde publikoek ez dituzte emakumeon ongizaterako bitarteko nahikoak bermatzen... Ez dira, beraz, triumfalista izateko garaiak. Bide luzea dago egiteko, eta horretarako, nire ustez, bi baldintza dira oinarritzko: batetik, emakumeek kontzientzia feministaz jokatzu, egunerokotasunean eragile indibidual gisa dugun potentzial guztia abian jartzea, egoera txikienetan ere gure eskubideak defendatuz.

Euskal Herriak etorkizunerako berdintasunean eta diskriminazio- ezean oinarrituriko gizarte bat eraiki nahi badu, behar-beharrezkoa du mugimendu feminista antolatu eta indartsu bat, gizarteari proposamenak egingo dizkiona, erakundeetara begira presioa egiteko gaitasuna izango duena eta emakumeon interlokuzioa eta ahots bihurtuko dena. Noizbait lortuko dugun itxaropena ez dezagun gal.

Egunkarietatik jasoa

Lana eta enplegua


Azken urteetan emakumeek lan munduan sartzeko egin duten apustuak ez du suposatu gizarteak barnerratu duenik bizitza beste era batera antolatu beharra dagoenik. Eta horrela, enpleguak gure bizitzaren ardatza izaten jarraitzen du. Gai- nontzeko lanak eta denborak (etxeko ardurak, aisialdia, eta abar) ez dira emakumeen lan munduan parte-hartze horren ondorioz berrantolatu.

Inor gutxiak kuestionatu du bizitzeko behar diren beste lan eta denborei nola

eta nork aurre egin. Suposatzen da, beraz, emakumeek jarraituko dutela betetzen bizitzaren zainketa horrek behar duen espazioa, lana eta denbora.

Ez honi buruzko hausnarketarik ez inongo gizartek ez familiarik erantzun egokirik eman ez dionez, emakumeek, lan munduan hasi aurretik, lan mundutik at zegoenean bezala, aurre egin behar dizkiote familia inguruan sortzen diren behar- rrizanei. Etxeko eta zainketa lanak egin ondoren denbora izango dute, hala nahi eta ahal badute, lan munduan sartzeko. Hona hemen gaitzaren iturburua. Duda

Dantzan



XABIER AZKARATE
Langilea

Bateren batek besteren bat zapaltzia izan da gizartiaren histori- xako ezaugarri bat. Asko dira honen adibidiak: arrazen arteko zapal- ketia, edade desberdinen artekuena, ekonomikua, eta abar luze bat. Hor tartian dago emakumien zapalketia be.

Zapalketa honen kontra egin diran aurrerapausu dexente, milaka emaku- mek egunez egun eta gehixenetan baka- rrik egindakua dira. Benetan txalot- zeko lana, baina benetako aldaketak emakumiak antolatzen hasi diranean gertatu dira. Lan bikaina egin dabe eta egiten dihardue.

Emakumiek euron askatasunerantz pauso bat emoten daberen bakoitzian, gu, gizonok, poztu egin beharko ginatke, poztu eta bultzatu pausu horiek gauzaterakuan. Konturatu behar gara eurok eskubideren bat lortziak ez dabela suposatzen gure "ez dakit zer" galtzia. Izan be, gizonen aska- tasunerako be balioarria da.

Asko eta azkar aldatzen ari dira harremanak pertsonen artian, eta ez jaku komeni gizonoi atzian gelditzia. Biherba- da, antolatu egin biharko ginatke geure askatasunaren alde egiteko, eta horretan beharrezkuak lirateke emakumien laguntza eta bultzada. Dantzatzia moduko zeeze izan behar- ko litzateke (hemen, suposatzen dot, danok dakigula dantzan): biren arteko kontua, batzuetan erritmua galdu, hurrenguan bestiaren oina zapaldu, barkamena eskatu eta segi dantzan. Ez dakit zuendako, baina gauza haundixa da dantzan ikas- ten hasi eta halako batian konturatzea badakigula dantzan.

barik, horrek, emakumeak lan munduan sartzeko, aritzeko eta garatzeko aukerak baldintzatzen ditu. Guztiok gara lekuko.

Lanaldi murrizketak, bizitzako den- borak (giza-denborak) era justuagoan denon artean banatzeko balio izan behar du. Bestela, gizarte zati handi batentzat ez du aldarrikatzen dugun baliorik izango.

B. Diez de Ulzurrun eta L. Gonzalez de Txabarri (ELAko Genero-Politika Saileko arduradunak)

Euskaldunon Egunkaria. 2001/03/06

Gora eta Behera



BBVA BANKETXEA

Besteak beste, malariaren aurkako txertoa aurkitu zuen Patarroyo mediku kolonbiar ospetsuari laborategia enbargatu zion Kolonbiako banku batek, zorrak ordaintzen ez zituelako. Orain, BBVAk Kolonbiako banku hori erosi du eta Patarroyo medikua- ren laborategia eta lana bultzatzeko fundazioa sortu du.



PORTUGALGO EZBEHARRA

Sarritan, ezbeharrak eta istripuak gertatzen diren arte, ez dira beharrezko neurriak hartzen. Horixe gertatu da oraingo astean Portugalgo Entre os Rios eta Castelo de Paiva herriak lotzen dituen zubia behera etorri zenean. Herriarrek aurretik zubia konpon- tzeko eskatu arren, agintariek muzin egin diete. Ezbeharrak gertatu da, 70 lagun hil dira... eta



ALFONSO ALONSO

Bergarako udaltzainburua

Koplak

Nafarroa eta euskara

Nafarroako presidentek bidali du seinalea, erderaz jarri behar dutela euskarazko seinalea.

Kasu honetan etxekoaren aurka dago etxekoa, hizkuntz gazteak zaharrenari galduaz errespetoa.

Madril aldetik makila jaso eta Iruñean arrantza, gure kexaren soinuarekin egin nahiko dute dantza.

Baina gu nola ez gauden gertu gurea dena saltzeko, borrokan segi beharko dugu helburua ez lortzeko.

Presidentea jarriagatik hitz jarioan harroa, bere oinetan sekula ezta makurtuko Nafarroa.

Euskaraz esan dezagun gure lehen hitza ta azkena, Euskal Herrian ez dadin buka Nafarroan hasi dena.

JOSEBA LASAGABASTER

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA:
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkoroberezar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain
SAILETAKO ARDURADUNAK
Edu Mendibil (Kirola,
Non Zer), Aintzane Irizar
(Berri-Zakua),
Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Nerea
Zallo, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Aitziber Langaran
MAKETAZIOA
Goio Arana, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

Gutunak

Gasteizko anaiak, ez zaituztegu ahazten

1976ko martxoaren 3an, poliziak 5 langile hil zituen Gasteizen, eta 100 baino gehiago zauritu, horietatik 20, larriki zauritu ere.

Egun haietako azken hildakoa Vicente Anton Ferrero izan zen, 18 urteko langilea. Guardia Zibilak Basaurin hil zuen martxoaren 8an, astelehena, egin zen greba orokorrean. Esan behar da greba hark ordura arte sekula izan gabeko geldaldi eta mobilizazioak eragin zituela, *Behera Diktadura Hiltzailea! Kanpora Gorputz Errepresiboak!*, eta horrekin batera, "Gasteizko anaiak, ez zaituztegu ahazten!" lelopean.

— Zein ziren garai hartako Euskal Herriko langile-mugimenduen ezauzgarriak?

— Borrokarako gogoia. Eta gogo hori pizten lagundu zuten elementuak: mugimendu gaztea, soziologikoki homogeneoa, luzaroan gora egiten ari zen ekonomia (langabeziarik ez) oinarritua, borroka horrekin zerikusia zuten beste borroka batzuen sinergia positiboa (diktaduraren, zapalketa nazionalaren zein errepresioaren aurkako borroka, askatasun politikoen aldeko borroka...).

— Autonomia eta bat-bateotasuna. Mugimendua ez zegoen egitura sindikalei lotuta (sindikatu bertikalaren egiturak formaz zurrinak ziren, baina ez praktikan; askotan fabrika bakoitzaren errealitatearen menpe zegoen). Bat-bateotasuna borroka-unetan agertzen zen. Bat-bateotasunak ez du mugimendu-anarkia esan nahi, baizik eta adierazpen autonomorako gaitasun handia, asanbladetak erabakien bidez, esate baterako.

— Elkartasunari irekita. Elkartasuna baldintza objektibok (homogeneotasuna, askatasun-falta, patronalaren portaera despotak) eta subjektibok (indarrean zegoen balorea, elkartasuneko jarrera ohitura bihurtuz doa —"gaur zuregatik, bihar niregatik"—...) bultzatzen zuten.

Oso erraza da esatea hogeita bost urte igaro ondoren ez dagoela borroka haie-tatik ezer hartzerik, egungo errealitateak ez daukalako ordukoarekin zerikusirik. Erantzun horrekin ez naiz gustura gelditzen. Egia da aldaketak izan direla, baina uste dut "martxoaren 3ko deiak" baduela gure sindikalintza eta, urrunago joanda, Euskal Herriko langile-mugimendua berritzen lagun dezaket hainbat osagai.

Martxoaren 3ak oso jarrera, balore eta portaera bizigarriak eskaintzen dizkigu egungo sindikalistei, besteak beste: konpromisoa asanblearioa, borrokatzeko gogoia, mobilizazio bateratuen giltzarri den elkartasuna, indarrak biltzeko ahalegina, langileen borroka-ri herri-dimentsioa aurkitzeko kezka...

JUAN RAMON GARAI
Arrasate

Zein irizpideren arabera?

Zer irizpide erabili da Bergarako Neberetako zuhaitzia mozteko? Bergarako Udala hasi da Neberetako elurzuloa berreskuratzeko lanetan. Tamalez, han zeuden zuhaitz guztiak matorrasaz ezabatzen hasi da. Elurzuloa berreskuratzeko, garbitzeko eta bidea egiteko ez zen beharrezkoa inguru hartako zuhaitz guztia ezabatzea. Zuhaitz handi eta zuhaixkak ezabatuak izan dira. Zertarako? Zein irizpideren arabera?

Justifikaziorik gabe suntsitu diren espezieen artean, sei pinu gorri moztu dira, itxura honekoak seiak (*Pinus sylvestris* edo *Piñu gorria*). Bergarako lurzoru publikoetan oso urriak dira aipatu espezieak, bakar batzuk Gorla eta Ameztu artean daude. Oker deitutako "garbilketa" hasi zela ohartu ginenean, Kapirixo elkarteari horren berri eman genion, eta gai horietan erantzukizuna duen zinegotziarekin hitz egin genuen

(200/01/17), gertatzen ari zena azalduz, eta baita aurrerantzean zentzugabea mozketak saihesteko eskatu ere. Gainera, *Pinus Silvestris* espezieko ale bakarra zaintzeko eskaera egin genion. Modu onean adierazi ziguten gertatutakoa "oharkabea" gertatua izango zela, eta neurriak hartuko zirela mozketak berehala geldiarazteko.

Gauzak horrela, ulertezina bada ere, mozketak egiten jarraitu dute, inolako konturik gabe. Han zegoen bertako azkenengo pinua moztu dute. Oraingo panorama tamalgarria da: grabillazko aparkalekua, biluzik dagoen bidexka, ia zuhaitzik gabeko malda handia, lizar eta alkazia gutxi batzuekin.

Elurzuloa berreskuratzearen aldekoak gara, eta uste dugu urbanizazio proiektua egin zitekeela hango zuhaitzak ezabatu gabe. Baina, interes handiko zuhaitzia suntsitzeak ez du inolako justifikaziorik.

Hemengo hostozabalak landatzerekin ados gaude, baina horretako ez zen beharrezkoa ezabatzea aurrez baliokoa zegoena.

Udaleko ingurumen teknikariaren inkompetentzia justifikazina berriro ere salatzen dugu, eta hamaika aldiz egin badugu ere, Hirigintza eta Ingurumen zinegotziari eskatzen diogu ondare naturalaren babesaren erantzukizuna modu eraginkorrean bere gain har dezala.

MENDIA BIZIRIK POL-POL
Bergara

Faxismoaren beste kolpe bat

Aste honetan, gazteentzako erreferente bilakatzen ari den Haika mugimenduko 15 kide atxilotu dituzte Espainiako kolono armatuek. Haika gazte erakundea desagertarazi nahi dute, jakin

baitakite herri euskaldun, aske eta sozialista bat eratzeko indarra daukagula. Euskal gazteria zapaltzeko politikari eta polizia kolonoak, lumadun txakurrak eta sasiepaileak beren proiektu faxistak martxan jarri dituzte, honekin, euskal gazteria eta orokorrean Euskal Herria mapatik kentzeko asmoa dute. Eraso hauen aurrean gure indarra erakutsi behar dugu. Gure herria eta ohorea dago jokoan, eta eraso hauen erantzuleei gogor erantzuteko ordua da, kalera irtetzeko ordua! Eraso bat bera ere ez erantzunik gabe! Atxilotuak askatu!


HAIKA
Aretxabaleta

Arbolapeta: 6-2

Arbolapetako lanak bukatuta ei daude. Oinezkoentzat egokitu dute, harresiz kanpoko beste leku batzuk bezala. Estetikoki itxura berria hartu du, itxura dotorea, baina funtzionalitateari dagokionez, hanka-motz geratu da, bertan bi banku besterik ez dituzte jarri eta. Izan ere, Arbolapeta zerbait bada, egoteko eta elkartzeko gune bat da, Mondragoek erdialdean duen topaleku nagusienetarikoa, adin guztietako jendeak erabiltzen duena. Arduradunak toki horretako azken urteetako ohiturez konturatu ez eta "oinezkoentzako" terminoan zentratu dira: "oinezkoak oinez!" edo, eta lehengo 6 bankuak 2ra jaitsi dituzte. Batetik, Expert-Salegi aurrealdean, lehen, banku bi zeuden espalojaren babesean; gaur, pasabide hutsa da, Gazteluondo alderantz jotzeko kurba hartuz gero, jaisten diren autoei jertsearekin distira ateratzeko modukoa. Eta bestetik, zuhaitzaren inguruan zeuden lau jarlekuak bitan geratu dira.

Arbolapetak bere izaera gal ez dezan, beharrezkoa da banku gehiago jartzea.

ANDER ETXEBERRIA
Arrasate



Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkariaren* ordezkarietzako batera.

BERGARAN, *Berrigararen* egoitzan, Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31
943 71 25 11

ARETXABALETAN, *Aretzagazetaren* egoitzan; Durana, 11
943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11
945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salvador, 26
943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1
943 76 60 62

Goienkaria,

bailarako hedabide nagusia.

Astero 20.000 etxetan / Prezioa: 10.000 pezeta.

Iñaki Galdos (Oñati, 1966) EAko Gipuzkoako exekutibako presidente aukeratu berri dute, eta Ibarretxe lehendakariak egindako hauteskundeetarako deiak bete-betean harraitu du. EAko bozeramailea da Oñatiko Udalean eta legebiltzarkidea Gasteizen.

ENEKO AZKARATE

Lehendakariak, azkenean, hauteskundeak aurreratzea erabaki du. Ezinbestekoa zen, edo bazegoen beste irtenbiderik?

Lehendakariak ondo egin du, eta erabakia ezinbestekoa izan da, batez ere, EHk Legebiltzarra uztea erabaki zuenetik gobernuan gauden bi alderdiok bozketa asko galdu ditugulako. Gure autogobernuaren aurkako lege aldaketa asko proposatzen ari zen oposizioa, eta hori onartezina zen. Hortaz, behar-beharrezkoa izan da hauteskundeak deitzea.

Une egokian egin du hauteskundeetarako deia?

Oraingo egoeran gehiago jarraitzerik ez zegoen, hori garbi dago. Gobernuko bi alderdiek helburu bat izan dute: legealdia luzatzea Ibarretxeren proposamena gizarteratu arte, eta horren ondorioz, indar politikoko bakoitzaren jarrera ikusi arte. Printzipio demokratikoetan oinarritutako proposamenak egin ditu lehendakariak, eta alderdi estatalistak proposamen horien aurka zergatik dauden azaldu beharrean izan dira. Ibarretxek onartu du bere desgastea, baina PP, PSE-EE eta UA alderdiek erakutsitako jarrera euren aurkako bihurtu da. Uste dut datuek arrazoa eman diotela lehendakariari, azken inkestek hori erakusten dute, behintzat. Beharrezkoa zen gizarateak ikustea proposamen konkretuen aurrean alderdi bakoitzaren jarrera zein zen.

Lehendabizikoz, legebiltzarkide izan zaitugu legealdi honetan. Legealdi berezia izan da, gainera. Zelan bizi izan duzu?

Bi urte pasatxo izan dira, baina oso sakon bizi izan ditut. Parlamentuan urte asko daramatzen adierazi didate lau urteko beste legealdi batzuk baino askoz ere sakonagoa izan dela azken hau. Sekula baino eztabaida eta lege proposamen gehiago izan dira, eta hori aberasgarria izan da niretako. Batzorde liskartienekoa, hau da, Hezkuntza eta Kultura batzordeko buru izatea egokitu zait, gainera.

Hauteskundeak begibistan ditugu eta EAJk eta EAK elkarrekin aurkeztea erabaki berri duzue. Onerako izango da bi taldeondako?

Bai, bi alderdion arteko lankidetzeta eta hauteskundeetara elkarrekin aurkeztea gizarateko zati handi batek eskatzen zuela uste dut. Azken urtean indar handia hartu duten bi muturren aurrean, hau da, alde batetik, PP-PSE-EEK osatzen duten blokearen eta, bestetik, ezker abertzalearen aurrean, beste alternatiba bat aurkeztea eskatzen zuten gizarateak, eta ez bakarrik EA eta EAJko ohiko boto emaileek. Gure eskaintza hiru puntutan laburbil daiteke: bakearen aldeko apustua, elkarrizketaren aldeko apustua gatazkari aurre egiteko eta gure etorkizuna erabakitzeko herri honek duen esku-bidea aldarrikatzea.

Zertan oinarritzen da bi alderdion arteko koalizioa?

Autodeterminazio eskubidea jasoko da. Bestalde, bi alderdion izaera bermatuko da, eta beste hainbat arlotan kutsu progresista duten proposamenak jasoko dira.

Azken udal hauteskundeetan ez zen



GOIO ARANA

Iñaki Galdos

EAko GIPUZKOAKO EXEKUTIBAKO PRESIDENTEA

“Ibarretxerekin, PP, PSE-EE eta UA alderdiek erakutsitako jarrera euren aurkako bihurtu da”

GOIENA

“Proiektua oso garrantzitsua da; udalak proposamenak egiteko aukera gehiago izan beharko lituzke”

BAKEA

“Gustatuko litzaidake hurrengo bakearen legealdia izatea, baina horretarako zenbait indar politikok heldutasun demokratiko handiagoa erakutsi beharko dute”

izan formula egokia...

Udal hauteskundeetatik hona, egoera politikoa asko aldatu da. Su-eten garaia zen eta ezker abertzaletik indar berria sortu zen, EH, orduan oso indartsu zegoena eta milaka eta milaka boto berri erakartzea lortu zuena, eta baita EA eta EAJko hainbat eta hainbat boto ere. Gaur egun, egoera bestelakoa da, eta uste dut alderantzizkoa gertatuko dela. EHrekiko ilusioa galdu duen asko eta asko guregana hurbil daitezkeela koan nago.

Zer emaitza espero duzue?

Gaur egun, 27 legebiltzarkide ditugu: EAJk 21 eta EAK 6. Hauteskundeek begira, gure helburua da, gutxienez, 30 lortzea. Gizarate erabat ilusionatu du koalizioak, eta ilusio hori gure alderdikide eta boto emaileengan ez ezik, gizarateko sektore zabala goengan ere lortu dugu.

Abertzaleak gobernatzeko moduan izango dira, edo Mayor Oreja ikusten duzu lehendakari?

Guk emaitza onak lortzea espero dugu.

EH legebiltzarrerara joango ez balitz, gustatuko litzaidake PPK eta PSE-EEK baino boto gehiago lortzea EAJk, EAK eta IUK. Une honetan, hauxe da egoera: 32-29 euren alde. Eta helburua da horri buelta ematea. Oso pozgarria izango litzateke guretako. Bestalde, nire ustez, abertzaleak gehiago izaten jarraituko dugu, baina argi daukat biolentziak jarraitzen duen neurrian, EHrek ez dagoela zer egiterik; are gehiago erabaki zuenetik Legebiltzarrerara ez joatea.

IUekin akordiorik ikusten duzu?

Bai, eta gustuko izango nuke, gainera. Nire ustez, herri honetan aurrera egin nahi badugu eta gure autogobernu markoa zabaldu gura badugu, ezinbestekoa da abertzaleak ez diren indar politikokoak kontuan hartzea. Gauza bat da norberaren ametsa eta bestea errealitatea.

EHrekin lankidetzarik ikusten ez duzula aipatu duzu. Eta sozialistekin?

Ezta ere. Une honetan, ez dut aukerarik ikusten. Gerora begira, ezinbestekoa izango da sozialistak ere kontuan hartzea, baina horretarako gogoeta egitea edo estrategia aldatzea beharrezkoa dute sozialistek. Hemengo sozialistek gauza badira, gutxienez, sozialista katalanek edo Donostiako alkateak egin duten gogoetarekin bat egiteko, poliki-poliki eurekin lankidetzarako bideak jorratuko ditugu. Sozialistek nahitaez onartu beharko dute guretako oinarritzko printzipioa dena, alegia, herri honek aukera izan behar duela bere etorkizuna erabakitzeko.

Amaitzera doan legealdia bakearen legealdia izango zela esan zuen lehendakariak. Argi dago ez zuela asmatu. Datorrena izango da?

Ibarretxek hori esan zuenean, bakea lor zitekeela usaintzen zen herrian, eta gizarate itxaropentsu zen. Zoritxarrez, garai beltz eta gogorretara itzuli gara, baina gutxienez, gauzak argitzeko balio izan du. Hemendik aurrera zer gertatuko den? Gustatuko litzaidake hurrengo bakearen legealdia izatea, baina horretarako zenbait indar politikok heldutasun demokratiko handiagoa erakutsi beharko dute.

ETAren su-etenik eta Lizarra-Garaziren tankerako akordiorik aurrez ikusten duzu?

Ez daukat itxaropen handiegirik. Edozein modutan, su-eten egingo balitz, hobeto gestionatzen jakin beharko genuke guztiok. ETak herriari hitza ematen jakin beharko luke, behin eta berriro gizarate mehatxupean eduki barik.

Estatutua agortuta dagoela diozue. Zein izango litzateke marko juridiko berria?

Oraindik, 28 transferentzia daude bete barik, eta horregatik uste dugu Estatutuaren aldeko borroka jarraitu behar dela. Orain, agortuta dagoela? Gure ustez, garaia da marko politikoko berri baterantz urratsak egiteko edo proposamen berriak plazaratzeko. Horretan dihardugu. Estatutua agortuta badago, berezko defizit estrukturalak dituelako da. Oso garai konkretu bateko fruitua da. Bestalde, 20 urtean, izugarritzko huste prozesua bizi izan du.

Goiena egitasmoa sinatuko dute datorren astean bailarako alkateek. Oñati, Bergara eta Elgetakoek, baina, ez dute sinatuko. Zergatik?

Goienako ordezkariekin harremanetan dihardugu, eta alderdi barruan ere gaia eztabaidatzen dihardugu. Bada ordua egoerari irtenbidea emateko, eta Oñatiko zinegotzi naizen aldetik, gure aldetik erantzuna eman barik denbora larregi pasatu dela onartzen dut. Bestalde, nire ustez, proiektua oso garrantzitsua da; udalak proposamenak egiteko aukera gehiago izan beharko lituzke. Uste dut proiektua, hasieratik, erakunde eta Goienaren artean landu beharra zegoela.

Hiru hautagai Realeko presidente izateko lehian

Debagoienean 1.145 bazkide ditu Realak, baina akziodunek bakarrik erabakiko dute kontseilu berria

EDU MENDIBIL / XABI URTZELAI

Jose Luis Astiazaran abokatua, Ignacio Gallo bihotzeko kirurgilaria eta Pello Gibelalde enpresaria izango dira Realeko presidente izateko hiru hautagaiak. Realaren lehen hauteskundeak izango dira, taldea 1993an elkarte anonimo bihurtu zenetik. Orain dela zortzi urte, Realaren kapital soziala 568 milioi pezeta ingurukoa zen, eta akzioak salgai jarri zituen sortu berri zen elkarte anonimoak. Realeko jarraitzaileek erantzun ezin hobea eman zuten, eta akzioak uste baino errazago saldu ziren. Akzio bakoitzak 8.000 pezeta inguru balio zuen, eta asko banatu zen Realeko kapital soziala, 9.600 akziodun inguru dituelako taldeak. Akziodunen %70 Donostian eta gainerako %30 probintziako herrietan bizi dira. Batez beste, akziodun bakoitzak bospasei akzio ditu.

Bailarari dagokionez, Realak jarraitzaile asko ditu, eta bazkide kopurua ikustea besterik ez dago. Realak 1.145 bazkide ditu Debagoienean. Akziodunak, berriz, logikoa denez, gutxiago dira. Herri guztietako akziodun kopurua jakiterik izan ez dugun arren, Arrasaten 79 akziodun dira, Bergaran, 76, eta Oñatin, 67. Debagoieneko akziodun garrantzitsuenetako bat Astore enpresa da, kapital sozialaren %2 ei daukalako.

Esan bezala, akziodunen batzar orokorra martxoaren 22an egingo da, Donostiako Atano III.a pilotalekuan, 19:30ean. Batzarra egin ahal izateko, beharrezkoa izango da, gutxienez,



Realeko presidente izateko hiru hautagaiak Indurain Batzar Orokorreko presidentearekin bildu ziren astelehenean.

ordu horretan, kapitalaren %25 ordezkatura egotea. Era berean, batzarrera joan ahal izateko, akzio kopuru minimo bat edukitzea derrigorrezkoa da. Gutxienez, bost akzioren ordezkartza dutenak bakarrik joan ahal izango dira batzarrera. Hala ere, bost akzio baino gutxiago dituztenek ere botoa emateko eskubidea izango dute.

Hiru hautagaiak web orriak atera dituzte, akziodunei eta jarraitzaileei euren proiektuaren berri emateko: www.astiazaranantaldea.com batetik, www.aupareal.com (Ignacio Gallorena) bestetik eta, azkenik, Pello Gibelalde aurkeztutakoa: www.errealberria.com.

Futbol taldeetako bazkideak herriz herri

| Herria | Reala | Herriko futbol taldea |
|----------------|-------|-----------------------|
| Antzuola | 46 | — |
| Aretxabaleta | 76 | 740 |
| Arrasate | 402 | 300 |
| Bergara | 377 | 450 |
| Elgeta | 11 | — |
| Eskoriatza | 24 | — |
| Oñati | 209 | 700 |
| Aramaio | — | — |
| Leintz Gatzaga | — | — |

Pello Gibelalde, azken orduko hirugarren hautagaia

Pello Gibelalde, Beasain taldeko presidentea eta HINE enpresako zuzendari orokorra, Realeko administrazio kontseiluko presidentea izateko hautagaia izango da. Gibelalde atzo auzeratu zuen hautagaitza. Harrobia lantzea, taldea Europarako sailkatzeko borrokan sartzea eta kanpotik datozen jokalaririk benetako onak izatea dira bere programaren ardatzak. Bera aukeratzeko badute, ziurrenik, Toshack izango litzateke taldeko manager orokorra, eta beste entrenatzaile bat izango luke taldeak. Gibelalde 57 urte ditu. Legazpin jaio zen, eta berarekin batera, besteak beste, Genaro Zelaia Realeko jokalaria izandakoa egongo da hautagaitzan.

Antza denez, Gibelalderen hautagaitza joan den urte amaieran sortutako talde batek buztatutakoa da. Talde hori Luis Migel Arkonada Realeko atezain ohiarekin eta Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentearekin jarri zen harremanetan, baina batak zein besteak uko egin zioten hautagaia izateari.



Nori emango zenioke botoa Realeko hauteskundeetan? Zergatik?

Bittor Arriaran

BONBA TALDEKO KIDEA

Astiazaranek proposatutako bidea hobea dela uste dut. Gallok aldaketa handiak proposatzen ditu, handiegiak. Aldaketa beharrezkoa da, baina ez dago zertan guztia aldatu, eta gure egoera zein den jakinda, aldaketak lasaitasunez egitea komeni da. Horrez gain, Astiazaranek oso lantalde gaztea dauka, eta nik, behintzat, konfiantza handia dut berarengan.




"Astiazaranen alde nago, gure egoeran aldaketak lasaitasunez egitea komeni delako"

J. Luis Etxebarria

ARRASATEKO UDALTZAINBURUA

Proiektu egoikiagoa dela uste dut. Astiazaranek hobeto ezagutzen du Realeko eta Gipuzkoako egoera, eta gertuagokoa ikusten dut. Horrez gain, Realeko presidente batek euskal nortasuna izan behar du, eta Astiazaran egokiago ikusten dut lan hori betetzeko. Azken baten, euskaldunago ikusten dut, eta taldeko interesak hobeto defendatuko dituen ustea daukat.



"Astiazaranek hobeto ezagutzen du Realeko eta Gipuzkoako egoera, gertuagokoa ikusten dut"

Rafa Etxeandia

ARETXABAETA

UDA taldeak baditu akzio gutxi batzuk, eta Astiazaranen alde egitea erabaki dugu, bere proiektua egoki iruditu zaigulako. Probintziako taldeei jarraipena egitea eta harrobiko lanari lehentasuna ematea derrigorrezkoa dela uste dugu. Realaren onerako izango delakoan.




Galloren programak ez nau konbentzitzen, eta Gibelalderena ez dut oraindik irakurri.

"Probintziako taldeei jarraipena egitea eta harrobiko lanari lehentasuna ematea derrigorrezkoa da"

Joseba Molinero

OLAKUA TALDEA

Batez ere, Begunkarietatik jarraitzen ari naiz hauteskunde kanpaina. Ez dakit zer gertatuko den, baina Gallok irabaziko duelakoan nago. Donostia aldean oso eguna delako. Astiazaran gazteago dela iruditzen zait, eta Gibelalde, berriz, berandu aurkeztu du bere hautagaitza. Dena dela, inportanteena da Realak lehen mailari eustea eta etorkizunari begira talde sendoa osatzea.



"Gallok irabaziko duela uste dut; Astiazaran gazteago da, eta Gibelalde berandu aurkeztu da"

JOSE LUIS ASTIAZARAN / Hautagaia

Abokatu gazte hau Zarautzen jaio bazen ere Donostian bizi da. 37 urte ditu eta Kirol Zuzenbidean, Zuzenbide Zibil eta Merkatalean aditua da. Jokalari profesional izandakoa, gaur egun Espainiako Kirol Zuzenbideko Elkartearen kide da. 1992tik Realeko Administrazio Kontseiluarren kide izan da.



“Goi mailako talde bat izatea nahi dugu, zaletuek berriz ere ilusioa izan dezaten eta etxeko jokalariei aukerak emanez”

Zertan oinarritzen da zure kandidaturaren programa?

Aldaketak egin behar direla uste dugu, baina aldaketa hauek lasaitasunez egin nahi ditugu. Kirol arloan goi mailako talde bat izatea nahi dugu, zaletuek berriz ere ilusioa izan dezaten. Gure helburua lehenengo mailan harrobiko jokalari askorekin jokatzeko da, eta horretarako harrobia bultzatzeko beharra ikusten dugu. Horrez gain, Realaren kudeaketa enpresa irizpideekin egin behar da, modu garden eta modernoan.

Zein politika jarraituko duzue probintziako taldeekin?

Probintzia mailan lan asko egin behar dela uste dugu. Realak Gipuzkoako taldeekin hitzarmen bat dauka, eta guk hitzarmen hori berritu eta hobetzeko asmoa dugu.

Horrez gain, Zubieta XXI izeneko proiektu bat dugu, eta bertan 3 zelai berri eta errendimendu altuko zentru bat egiteko asmoa dugu. Zentru hau

Zubietako eta probintziako jokalaria gertatzeko erabiliko da.

Harrobiari garrantzia ematen diozue.

Esan bezala, helburua harrobiko jokalari askorekin jokatzeko da, baina kirolariak futbolari eta pertsona bezala hezi behar direla uste dugu, horretarako kirol formakuntzarekin batera, hezikuntza pertsonala ere ber-

matu behar da.

Atletismo pistak zeresan ugari eman du.

Helburua Reala bere publikoari hurbiltzea da. Hurbilketa hau arlo fisikoan eta arlo emotiboan egitea nahi dugu. Arlo fisikoan harmailak zelaira hurbilduz, eta arlo emotiboan aldizkaria, web orri bat, eta peñekin ere harreman zuzenagoa izatea nahi dugu.

IGNACIO GALLO / Hautagaia

Erandon jaioa, zazpi urte zituela bere familia Zaldibarrera bizitzera joan zen. Batxilergoa Durangoko Jesuitetan egin zuen eta gero, medikuntza ikasi zuen Valladoliden, 1968ra arte. Bihotzeko kirurgialaria da eta gaur egun Poliklinikako administrazio Kontseiluko presidentea da. 49 urte ditu, ezkondua dago eta bi alaba dituzte. Realeko bazkidea da orain dela 6 urtetik.



“Errendimendu altuko zentru bat sortu nahi dugu, entrenamendua profesionalizatu eta jokalaria behar bezala prestatzeko”

Zertan oinarritzen da zure kandidaturaren programa?

Bi alderdi nagusi ditu: alde batetik administrazio kontseiluak zehaztuko du jarraitu beharreko ildo eta, era berean, gestioaren kontrola izango du. Kontseilariak kodigo etiko baten menpe egongo dira, kontseilariak izateagatik Realarengandik etekinik atera ez dezaten. Eta beste aldetik, kirol zuzendari orokorraren figura sortu dugu: honek entrenatzailer egokia aurkitu, fitxaketak egin edota kirol egitura osoaren diseinua izango du bere gain. Horrez gain, errendimendu altuko zentru bat izatea nahi dugu, jokalaria behar bezala prestatzeko.

Zein politika jarraituko duzue probintziako taldeekin?

16 urtera arte futbolari euren medioan jarraitzearen aldekoak gara, nahiko traumatikoa gerta daitekeelako 12-13 urteko mutil bat Realetik bere

herrira itzultzea. 16-18 urterekin, berriz, erdi-profesionalizatutako egitura batean sar daitezke destakaten dutenak.

Harrobiari garrantzia ematen diozue.

Lehen taldearen bi herenak etxean hazitako jokalaria izatea da gure helburua. Eta kanpotik ekartzen ditugun jokalaria benetan onak izatea. Hobe da 3 jokalari onak

fitxatzeko dirua gastatzea, diru bera 10 ekartzen gastatzea baino.

Atletismoko pista?

Estadioaren jabea (Jaurlaritza, Diputazioa eta Donostiako Udala) miniestadioan 10.000 lagunendako estadioa egitea proposatu diegu, Anoetako pista kendu eta harmailak zelaira hurbildu ahal izateko. Hala ere, ez dugu atletismoa baztertu nahi.

Andoni Azkargorta

SARRIEGI TALDEA

Ez daukat hauteskundeetan botoa emateko eskubiderik eta ez nuke argi izango nori eman botoa.



Dena den, presidentea ausarta izatea gustatuko litzaidake (ez oraingoa bezala), bai fitxaketak egin eta bai erabakiak hartzeko orduan. Era berean, taldeak ahalik eta atzerritar gutxien izatea eta, gutxienez, UEFAn sartzeko borrokan egoteko modukoa izan behar genuke.

“Taldeak ahalik eta atzerritar gutxien izatea eta UEFAn sartzeko borrokan egotea nahi nuke”

Lauri Askargorta

ARANZABAL LAGUNARTEA

Kanpaina begunkarietatik jarraitzen ari naiz, eta ikusten dudanez, Galloren proiektua nahiko berritzailea da eta Astiazaranenak, aldiz, oraingo zuzendariaren jarraitzailea dela ematen du. Urteotako esperientzia bere alde dute. Azken orduan aurkeztu den Gibelalderen proiektua, berriz, ez dut ondo ezagutzen.




Dena den, ez daukat botoa emateko eskubiderik.

“Galloren proiektua nahiko berritzailea da eta Astiazaranenak, aldiz, oraingoaren jarraitzailea dirudi”

Juanito Arriaran

ARRASATE

Entrenatzaile guztien gainera, arduradun nagusi bat egotea ondo ikusten dut, entrenatzaile urte batetik bestera aldatzen delako askotan. Oraindik ez daukat batere garbi nori emango diodan botoa, biak ere lagunak ditudalako.




Astiazaranen aurkezpenera ezin izan nintzen etorri baina Azkargortaren ideiak oso onak direla uste dut.

“Entrenatzaile guztien gainera, arduradun nagusi bat egotea ondo ikusten dut”

Pedro Egaña

BERGARA

Hasiera batean Juan Luis Larrearen kandidaturaren joatekoa nintzen proiektua interesgarria zelako, baina Larreak atzera egin duenez, ez dakit zer egingo dudan. Oraingo behintzat ez dut beste kandidatoen eskaintzarik jaso baina datorren astean-edo gauzak garbiago izango ditut.



Akzionista banaiz baina ez dut oraindik erabaki nori eman botoa.

“Hasieran Juan Luis Larrearen kandidaturaren joatekoa nintzen, proiektu interesgarria zelako”

Roman Lopez


ARRASATE

Arrasatera bai Astiazaran eta bai Gallo etorri dira euren proiektuak azaltzera. Ni Galloren ekitaldian bakarrik izan naiz eta, egia esateko, Xabier Azkargortak azaldu duen kirol proiektua zoragarria iruditu zait. Konfiantza osoa dut Azkargortarengan.



Ez daukat hauteskundeetan botoa emateko eskubiderik baina Galloren proiektuak erabat konbentzitu nau.

“Azkargortaren kirol proiektua zoragarria iruditu zait. Konfiantza osoa dut berarengan”



Goienako kanpo produkzioak

Gure unitate ibiltaria zure esku



Jaialdiak

Hitzaldiak,
batzar orokorrak,

Antzerkiak
eta musika

Kirolak:
futbola,
pilota,
eskubaloia,
saskibaloia

BATZAR OROKORRA



Aurrekontua eskatu

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Goienka 2a


Egubakoitza / 2001eko martxoaren 9a

Kultura
eta
Aisialdia



Martxoaren
9tik 16ra

KORRIKA KULTURALA



Antxintxika egiteko egunak heldu dira. Gure hizkuntzak jasan dituen eraso guztiei aurre egiteko takarraran egiteko gonbita eginda dago.

Euskararen aldeko konzientzia suspertzea eta gau-eskola eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua batzea du helburu Korrikak, eta gure bailaran, urtero legez, ondo hartua izango da AEKren ekimena. Bi bider sartuko da Korrika gure bailaran, eta bailarako herri guztietatik pasatuko da, Aramaio eta Elgeta kenduta. *Goienkariak* ateratzen dituen beste ale ditu AEK-k bere ikasgeletan, hau da, 20.000 ikasle inguru dira, eta horien irakasleak, 600. Horrek guztiak merezi du bederatzi eguneko jarduna. Ea aurreko Korrikako 600.000 lagunak motz geratzen diren eta jende gehiagok parte hartzen duen aurtengoan.

Aurten, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak izango da omendua, izan ere, gure kulturaren adierazpiderik behinenetako bat dugu. /14

IBAN ARANTZABAL

MUSIKA / ANTZERKIA / HITZALDIAK / BERTSO-AFARIAK / DANTZALDIAK

Korrika | Kultura ekintza ugari 'Korrika Kulturala' programan

Korrika kulturala korrikaldiaren atarian

EGITARAU AURRERAPENA EGINA DAGO, HALA ERE, HURRENGO ASTERAKO ZEHAZTUKO DIRA KORRIKA KULTURALEKO EKITALDIK

Korrika 1980an jaio zen, eta ordu-tik hona, bi urtero izaten da euskarari bultzatze modua, izerdi pixka bat aterata.

1980a baino urte batzuk lehenago, Bai euskarari jaialdi historikoa egin zen, eta garai hartan hasi ziren ikastolen aldeko jaiak antolatzen (Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats). Testuinguru horretan, helduen euskaldun-zeak euskararen berreskuratzean duen garrantzia azpimarratuko zuen ekitaldia egiteko ideia sortu zen AEKn. Ekitaldi hori Euskal Herri osoa zeharkatzen duen lasterketa erraldoia bihurtu da, eta aurten ere hala egingo du Gasteiztik hasi eta Baionara bitartean.

Modu askoz har daiteke parte eta ideia guztiek dute tokia; ondorioa adiskidetasunez gozatzen den lana da. Badira kilometro pila galanta egingo dutenak, baina garrantzitsuena bidean egotearekin bidea egitea da. Bide ertzean dagoenaren txalo zaparrada ez da makala, horrek ez dio indarra antxixketan diharduenari bakarrik ematen, baita euskarari berari ere, eta bide batez, txaloka diharduen euskaltzaleari. Bidean aurrera egiteko, denon konpromisoa derrigorrezkoa da, beti ere norberaren ahalmenen arabera, lehen esan bezala. Korrika 12k euskararen aldeko konpromiso horiek bultzatuko ditu Euskal Herri osoan zehar, auzolanarekin batera.

Bailarako herri gehienetatik pasatuko da Korrika

Martxoaren 29an abiatuko da Korrika Arabako hiriburutik, eta apirilaren 8a arte izango da, gau



Martxoak 9, egubakoitza

22:00 Arrasate. Hijas del Soll (Ginea aldekoak), Txanbela (Euskal Herria) eta Faltriqueira (Galizia). Munduko musikak Musakolako kiroldegian. Ekin emakume taldearekin batera antolatua

Martxoak 14, eguaztena

18:00 Bergara. Txan magoa. Ekitaldi nagusiendako izango da, eta atek zabalik izango ditu joan gura duenak. Zaharren egoitzan.

Martxoak 16, egubakoitza

16:30 Aretxabaleta. Hamabostaldi kulturalari hasiera emango zaio, eta hasteko, Takolo Pirrtx eta Porrotx arituko dira.
22:00 Bergara. Jam Aretuan. Sen, Selektak kolektiboa eta DJ-ak.

Martxoak 23, egubakoitza

21:30 Bergara. Korrikako afaria Infernukua tabernan.

Martxoak 31, zapatua

19:00 Arrasate. Dantza-kalejira
22:30 Arrasate. Amaia antzokiko sarreran, Haragi Gordina musika taldea.

Apirilak 1, domeka

12:00 Arrasate. Banden kalejira.
15:00 Arrasate. Kontzertua eskainiko dute. Bandaren kontzertua. Arratsaldean, Arrasateko konpartsekin kilikariak, buruhandiak, erraldoiak...
18:30 Antzuola. Txan Magoa, zinematikian.
19:30 Arrasate. Vaiven taldearen *Lotsa-Gabe* antzezlan.

Apirilak 2, astelehena

15:30 Arrasate. Korrika txikia.
16:30 Arrasate. *De traka trikimailu espres* antzezlan. Gero, txokolate jana.
19:00 Arrasate. Trikitilari eskolakoeekin herri poteoa.
21:00 Arrasate. Musakolako Hostalean: bertso afaria. Bertsolari gonbidatuak: Lazkano eta Mañukorta.
01:30 Arrasate. Korrika.

eta egun, geratzeka, Baionara heldu arte. *Mundu bat euskarara bidu* lelopean sartuko da bailaran ere.

Apirilaren 2an pasatuko da Korrika Debagoienetik. Bi sarrera izango ditu Korrikak gure eskual-

dean: Lehenengoa, Azpeitia, Azkoitia, Elgoibar, Eibar eta Soraluze igarostean izango da. Osintxu alde-

tik 22:20ean iritsiko da Korrika antxixketariak fin-fin betetzeko badute handik hona behar den kilometro kopurua. Gero, Bergara erdigunera 21:00etan iritsiko da eta Antzuola aldera egingo da 21:30 aldera gure bailaratik irte- teko.

Bigarren aldiz, Urretxu, Zumarraga, Legazpi eta Udanatik zehar berriz ere bailarara. Oñati (23:40), Arrasate (01:10), Aretxabaleta (02:00), Eskoriatza (02:17) eta Gatzagan (02:01) izango da Korrika. Gero, Araba aldera sartuko da han ere beharko da eta zer edo zer.

Aurten, Elgeta eta Aramaio gertuko dira jai horrekin gozatu baino Korrikak gure kaleak poztu ditu eta. Gainera, eragin handia du kili-koladagoen jendearengan. Non ez da behar pizgarri den ekitaldiren bat, euskara suspertzeaz ari garenean?

Batzuek Baltasar Garzon epaileak AEKren aurka kaleratu berri duen autoa gogoratuz egingo duela korrika, eta beste batzuek aurreko prestatuta dauden ekitaldi horien guztiek berotuta; hala ere, gure bailarak erantzun basatia emango du alfabetatze eta Euskaldunze Kordinakundeak antolatutako jaiari.

AEK-ko arduradun Xabier Ugalderen hitzetan, denona izan beharko da ahalegina, bultzada sendoa izan dadin: "Agintariena, beharrezko legedia ezarri; gizarte eragileena, euren arloetan pauso eraginkorrak eginez, euskarak eremu berriak irabaz ditzan; herritarrena, euskara ikasiz eta erabiliz; azken baten, euskal gizartearen ahalegina".

IBAN ARANTZABAL

Argitalpena | 'Putz' bihilebetekaria

Kalean da 'Putz' en zazpigarren zenbakia

Umeak urtebeteko ibilbidea egin du dagoeneko. Itxuraz sendotuta, indartuta, mihi gaiztotuta eta gero eta lotsabakoago dator eskola-akademietan karrera handirik egingo ez duen deabru arraio hau. Taberna zuloak ezeez, bestelako zulo umel eta beltzetan ere murgilduta dator kigu ale berria. Edukietan inoiz baino haragi-mamitsuago.

Jon Arano: sekula santan euskaraz egin den estriptis espiritualik zintzoena; poeta ostielarraren filiak eta fobiak, bere paranoiak, bere sexu joera ezkutuenak agerian...

Olentzero pajero mendira joan zai-gu larrutan; horixe argitu digu Nora Isasi idazleak bere tesi doktoral moduko honetan (On Joxe Miel Barandiaranek isildu zuena, edo esaten ausartu ez zena...).

Ezagut itzazu Olentzero Pajero-ren andantzak, tximiniarik tximinia *voyeur* joaten denekoak... Estralurtar talde kuxkuxeroa sartu digu Eduardo Galeanok Etxe Zurian; bekadun berriak ote? Paddy Rekaldek Rebel kantua eta rebel begiradak dakartzigu, ronez ondo bustiak, jakina. Asier Serranoren Hoteleko kontuak, prosa xamur eta gozoa. Akau-

zazte: Azpeikoitiko taldea, Etzekiat Sound-aren aitapontekoak. Txokolatada bero-beroa gastronomía atalean. J. A. Rocaren "Larrea, langile errea", edo nola egin iraultza barrearen bitartez, eta adibide bat.

Murgil zaitez Egipto faraonikoan Mikel A. Irizarren dokumentazio lanaren eta M. L. Larrañagaren marrazki barregarrien bitartez. Iñaki Azurmendi eta Txili lekeitiarraren poema argitaragabeak. Alu-zinatuta (bai, gidoitxo eta guzti) da Oihana Zuloagaren proposamen eszitagarria. Zirtzart, Zaputzaldi Bulartsua... eta beste bajina bat kontu *Putz* berrituan!

Iturgaitz, Sun Hill, Mikel Santz eta euren konMelitonekin nazka eginda bazaude, eros eta zabal ezazu *Putz* aldizkaria, urtebeterekin letaginak zorrotz-zorrotz eginda dakarren engendroa. Idatz egiguzu eta egin zaitez harpide. 3.000 pezeta ziztrinen truke, sei aldizkari eta liburu bat ("Puntu eta koma etilikoak") doan. Idatz egiguzu gure zerrenda beltzean fitxatu zaitzagun: *Putz*/168 Posta kutxa/20500 Arrasate (Gipuzkoa) edo bialdu datuak e-mailez: putz@euskalnet.net.

DIEGO MARTIARTU



Kronika

Mikel Urdangarinen kontzertua Bergarako Udal Pilotalekuan


Urdangarinen egarriz...

Noiz: martxoak 4, zapatua. **Non:** Bergarako Udal Pilotalekuan. **Zenbat jende:** 500 lagun inguru. **Iraupena:** Ordu eta erdi. **Musikariak:** Mikel Urdangarin (kitarra eta ahotsa), Aitor Rubio (kitarra), Angel Lopez (bateria), Pablo Tato (saxoa), Javier Fernandez de Jauregi (kontrabaxua) eta Megi Khaburdzania (biolina).

Debagoiengan lehenengoz aurkeztu behar zuen Mikel Urdangarinek azken lana, *Espilue*. Hirugarren diskoa arrakastatsua izaten ari da. Zelanbait esateko, kantariaren kontsagrazioa ekarri duena. Mikel Urdangarinek berak ere halaxe aitortzen du, azken lana musikari kontzientzia bezala egin duen lehena dela.

Egarriz ginen bai, eta asko izan ginen *Espilue* diskoko kantuak zuzenean entzuteko aukera pasatzen utzi ez genuenak. Baziren bergararrak entzuleen artean, baina inguruko herrietako *Urdangarinzale* asko ere hurbildu zen pilotalekura. Bergarako pilotalekuaren behealdea bete egin zen, eta ez zen sorpresa izan hala gertatzea.

Esandako orduan hasi zen kontzertua. Hamar eta erdietarako zen hitzordua, eta ordu horretatik gauerdiko hamabiak arte etengabe aritu zen zornotzarrak kantuan. Azken diskoaren kantuekin ekin zion kontzertuari. *Hau ez da amodiozko kanta*, jarraian *Urrun izanik*, eta hirugarrena abestu orduko, *Non geratzen den denbora*, entzuleok kontzertuan sartu ginen. Eta hori ez da gutxi pilotaleku batean. Behar bada, pilotalekua ez da Urdangarinen kontzertu bat entzuteko leku aproposena. Musikariaren eta entzulearen arteko tartea ez zen handiegia, baina horren inpresioa ematen



Urdangarinek gustura utzi zituen bildutakoak.

ENEKO AZKARATE

zuen. Gainera, musikariak oholta gainean aritu arren, pilotalekuaren erdian jarri zirenek bakarrik ikus zitaketen guztiak. Bigarren lerroan eta albo batean jartzea tokatu zitzaigunok zeharka begira jarraitu behar izan genuen kontzertua, eta bafleen erruz, esaterako, Aitor Rubiok gitarra zelan jotzen duen ez ikustea, bada, pena da. Hain zuzen ere, albo bate-

an edo goian esertzea tokatu zitzaizkien kexatu ziren zertxobait soinuaren kalitateaz. Eszenatik zuzen-zuzenean soina jaso zutenek, berriz, ez zuten halakorik igarri.

Kantuari hasiera eman aurretik, abestiaren inguruko azalpenak eman ohi ditu Urdangarinek, eta ezaugarri duen patxada horrekin, zapatuan ere hala egin zuen.

Ez zuen ahaztu hitzen egileen izenak aipatzea ere, eta lagun zituen musikariak ere apurka-apurka aurkeztu zituen. Urdangarin bakarka ere fin aritzeko gai da, baina lagun dituen bost musikariekin kontzertua are borobilagoa izaten da. Euskal Herrian gitarrak ere onak hainbat dira, eta Aitor Rubio horietako bat dela esatea ez da gehiegikeria. Horri baterian Angel Lopez gehituz gero, saxoan Pablo Tato, kontrabaxuan Javier Fernandez de Jauregi eta biolinean Megi Khaburdzania georgiarra, garbi dago zornotzarrak bere inguruan punta-puntako musikariak biltzen jakin duela.

Kantautoreen kasuan bada uste bat. Jendeak pentsatzen du kantautoreak kontzertuak bakarrik eskaintzen dituela, edo musikari gutxiengatik. Uste horrekin zapatuan pilotalekura hurbildu zenak ezusteko galanta hartuko zuen. Musika tresnen ugaritasunari dagokionez, ia-ia diskoa entzutea bezalakoa izan zen zapatuko emanaldia.

Gogoz egin zioten txalo entzuleek kantariari eta bere laguntzaileei, eta Urdangarinek hori eskertzen jakin zuen. Kontzertua amaitutzat jo zuenean berriro ere oholta gainera igo, eta beste kantu sorta bat eskaini zuten. Hala ere, garbi geratu zen aurrez pentsatutako zerbait zela. Baina, kontu jakina da, kontzertuetan ere antzertu beharra dagoela. Abesti gehiago entzun nahi baditu, entzuleari derrigorrezkoa zaio *beste bat* oihukatzea, eta kantariari, eskariari baiezkoa eman aurretik zalantzazko aurpegia jarzea.

MARIA AGIRRE

Nire aukera

Oskar Elizburu Arrasateko AEK-ko irakaslea

Liburu bat aukeratu atal honetarako. Horrenbeste libururen artean ez da erraza izaten, hala ere,



azkenaldian gure ikasleek irakurtzen duten bat aukeratu dut. Urrezko triangelua da izenburua, eta Jon Arretxe idazlearena da. Ez da gaur-gaurkoa, baina nik aurten irakurri dut. Sexua, edo hobeto esateko turismo sexua, drogak, Tailandia inguruko egoera... ondo adierazten ditu liburua, irakurtzeko modu errazean.

Arina da irakurtzeko, eta guk seigarren eta zazpigarren urratsetan erabiltzen badugu ere, gomendagarria da edozeinendako.

'URREZKO TRIANGELUA' Jon Arretxe




IBAN ARANTZABAL

Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA | Hiztegia



Aresti, Axular, Dante, Descartes, Mitxelena, Voltaire eta Zulaikaraino hedatzen da idazle, politiko, artezale eta filosofoen errenkada luzea, bakoitzak esan edo idatzi zuen perpaus, aforismo edo pentsakizunaren lorategia osatuz. Hiztegia lanabesa da, baina batez ere, pentsamenduaren eta sorketaren gozamen. Autore eta pertsonaien izenak alfabetikoiki sailkatuak daude. Aipua jakinduriaren sintesia bil dezakete edo irribarrea eragin, baina guztiak ere adimen zorrotzaren miraila dira.

**AIPUEN
HIZTEGIA**
Xhariat
Hiria
argitaletxea
135 orrialde

LIBURUA | Hiztegi berezia




**AMBROSE
BIERCE**

Deabruaren
hiztegia
Xabier Olarra
Lizasok itzulia
IBAIZABAL
304 orrialde

Ibaizabalek literatura unibertsa-laren sailean ateratako beste itzulpen lan bat. Baten batek *Gingo Viejo* eleberria edo filma ezagutuko du. Filmak Gregoy Peck zuen izar nagusi. Carlos Fuentesek idatzitako film hori argitu barik geratu zen Ambrose Bierce-ren desagertzean dago oinarritua, hori ere Mexikon desagertu zen eta. Liburuaren ardatz nagusia berben definizioak dira, epigramak, istorio laburrak, pasadizoak, bertsoz definitutako hitzak... Gauzak gordin agertuko dizkigu, hortaz, *Deabruaren hiztegiak*.

DISKOA | Perkusioa



**TRIBU
CHAMAN**

Autoprodukzioa
12 kantu
52 minutu
jarraian

Taldeakideak: Angel Lopez, Nick Twilley, Iñaki Bruña, Raul Romo eta Aitor Garcia. Munduan zehar eginiko bidaia birtuala eskaintzen dute euren lehen lan luzean, hainbat kulturatako musika nahastu eta gero. Musika elektronikoa gogorarazten duen arren, instrumentu primaioak erabiliz eta karga emozional handiarekin eginiko diskoa da. Autoprodukzioa izanda, Arrasateko Ispilu tabernan, Aretxabaletako Azkenan, Bergarako Pol-Polen, Oñatiko Gurian... Autoprodukzio profesionala.

Martxoa: 9-16

Edu Mendibil / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

Antzerkia

ARETXABAETA

> **Takolo, Pirritx** eta **Porrotx** pailazoen emanaldia zapatuan, hilak 10, kiroletxean, 17:00etan.

ANTZUOLA

> **Vaiven** taldearen *Lotsa-gabe* antzezlanaz zapatuan, hilak 10, zinema aretoan, 22:30ean.

OÑATI

> **Kataluniako Grappa Teatre** taldearen *Muac!* antzezlanaz egubakoitzean, hilak 9, Santana aretoan, 22:30ean.

EIBAR

> **Eibarko XXIV. antzerki jardunaldiak.** **Fila siete** taldearen *Cierra bien la puerta* antzezlanaz astelehenean, hilak 12. Martitzenean, hilak 13, **Steve Rawling**-en *En vivo e inestable*; eta eguaztenean, hilak 14, **Descalzos producciones** taldearen *Pa siempre* antzezlanaz. Azkenik, hilaren 16an eta 17an, **Salvador Colladoren** *Eso a un hijo no se le hace*. Emanaldi guztiak Unibertsitate Laboralean, 20:30ean.
> **Melodimaginaire** izenburupean, François Godardek hainbat narrazio eskainiko ditu (frantsesez) Frederic Bougouin-Kramer harpa jotzailearen laguntzaz martitzenean, hilak 13, Ignacio Zuloaga institutuko aretoan, 19:00etan.

ELORRIO

> **London Mime Teatre** taldearen *Mozart* antzezlanaz egubakoitzean, hilak 9, Arriola aretoan, 22:30ean.

Musika

ARRASATE

> **Hijas del Sol, Faltrikeira** eta **Txanbela taldeak** egubakoitzean, hilak 9, Musakolako kiroldegian, 22:00etan, **Korrika Kulturalaren** barne.
> **Sikotiko moon** taldea eguba-

koitzean, hilak 9, Gure-Leku tabernan, gauerdian.

> **Luis Aranburu Big Band** zapatuan, hilak 10, Amaia antzokian, 20:30ean.
> **Kañeria 13, Txapelunk, Deskontrol** eta **Odio** taldeak zapatuan, hilak 10, gaztetxean, 22:00etan. Ikasle Abertzaleak taldeak antolatuta.

BERGARA

> **Mudvayne, Raging Speedhorn** eta **Jousilouli** taldeak egubakoitzean, hilak 9, Jam aretoan 22:00etan.
> **Anestesia eta X-at** zapatuan, hilak 10, gaztetxean, 23:00etan.
> **Gluecifer, Peepshows eta Mermaid** zapatuan, hilak 10, Jam aretoan, 22:00etan.
> **Speedball Baby** eta **The Horrors** domekan, hilak 11, Jam aretoan, 21:00etan.

ELGETA

> **Txuma Murugarren** egubakoitzean, hilak 9, gaztetxean, 22:30ean.

ELORRIO

> **Benito Lertxundi** datorren egubakoitzean, hilak 16, Arriola aretoan, 22:30ean, **Korrika Kulturalaren** barne.

Erakusketak

ARRASATE

> **Ximena Saiterren** eskulturak Harresi aretoan, martxoaren 11 arte.
> **Diana Orbe** margolariaren erakusketa Toki-Eder kafetegian, martxoaren bukaera arte.
> **Gipuzkoako zuhaitz eta zuhaixken herbarioa** Monterron jauregian, 19a arte.
> **Gure-Leku** tabernak deitutako margo lehiaketara aurkeztutako lanak tabernan daude ikusgai.

ARETXABAETA

> **Copreciri buruzko** argazki erakusketa Duranako erakusketa txokoa.

BERGARA

> **Oihana Garitanoren** pintura eta argazki erakusketa kultura etxean, martxoaren 18a arte.
> **Aratusteetako** argazkiak Nahikari tabernan.

EIBAR

> **Aitor Larrañaga** zarauztarraren margo erakusketa Portalean, martxoaren 18a arte.
> **Esperanza Zabalen** margo erakusketa Portalean, martxoaren 18a arte.

Lehiaketak

BERGARA

> **IV. Abdon Juaristi** pintura lehiaketa. Kartelen gaia *Zezenak Bergaran* izango da, eta lanek Bergarako motibo bat edukitzea beharrezkoa izango da. Estiloa eta teknika librea izango dira. Marko barik, euskarri gogorrean edo basidorearekin aurkeztuko dira. Neurria: 55x46 zentimetro, gutxienez, eta 146x114 zentimetro, gehienez. Lanak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, astelehenean egubakoitzera, 2001eko maiatzaren 3a eta 10a bitartean, biak barne, 16:00etatik 21:00etara bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Sari banaketa 2001eko maiatzaren 19an egingo da, kartelaren aurkezpen ekitaldian.

AZPEITIA

> **Kartel lehiaketa.** Euskal antzerki topaketaren XIX. ekitaldia dela eta, Azpeitiko Udalak kartel lehiaketa deitu du. Lehiaketan esku hartzeko mugaguna: apirilaren 30a. Edozeinek parte har dezake, gehienez hiru lan aurkeztuz; lanak argitaratu barikoak izan beharko dira. Irabazleak 150.000 pezeta jasoko ditu. Argibide gehiago 943 15 72 00 telefono zenbakian jaso daitezke.

Ikastaroak

ARRASATE

> **Masaje bateratua** ikastaroa antolatuta du Arrasate Yoga Elkarteak. Zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.
> **Literatura tailerra** Monterronen, martxoaren 15etik apirilaren 5era, eguenetan, 18:00etatik 20:30era. Irakaslea Jon Alonso izango da. Izena ematea: 3.000 pezeta (2.000 pezeta ikasle eta langabetuendako). Argibideak: 943 77 00 65.
> **Zeramika** ikastaroa martitzen eta eguenetan, Laixe zeramika elkartearen (Nafarroa etorbidea, 23), 19:00etatik 21:00etara, ekainaren 21era arte. Irakaslea Ainhoa Arregi izango da. Prezioa: 7.500 pezeta (6.500, ikasle eta

langabetuendako). Izena ematea Arrasateko Gazte Bulegoan egin daiteke.

BERGARA

> **Arin arin eta fandango** ikastaroa antolatuta du Moises Aspiazu dantza taldeak, 12 urtetik gorakoendako. Eskolak zapatu goizetan izango dira. Izena ematea eta argibideak 943 76 15 40 telefono zenbakian.

Deiak

ARRASATE

> **El Salvadorri laguntza** emateko, kontua zabaltu du Medicus Mundi erakundeak: BSCH 0049 0001 59 2810016616.
> **Indiarako laguntza** emateko, kontuak zabaltu ditu Medicus Mundi erakundeak Euskadiko Kutxan, Kutxan eta BSCH banketxean.
> **Hitzaldia.** *Emakume eta indijena izatea.* Hizlaria: Mundukideko kideak. Martitzenean, martxoak 13, Monterronen, 19:00etan.
> **Mahai-ingurua.** Elikaduraren krisiaz mahai-ingurua antolatuta du AED elkarteak eguaztenerako, hilak 14, Monterronen, 19:00etan. *Zein espongiformeago, abereak ala gizartea?* izenburupean, Maite Aristegi EHNEko idazkari orokorra, Patxi Montero EKONEko idazkari orokorra eta



ANTZERKIA

'LOTSA-GABE'

Garbi Losadaren zuzendaritzapean, Jon Calvo, Getari Etxegarai, Miren Iburguren, Gorka Otxoa eta Maider Yabar dira antzezlaneko aktoreak. Vaiven taldeak, umorea ardatz harturik, sexuaren gaineko galderak egiten ditu: Nola egiten da amodioa? Ni birjina naiz, martiziano bat naiz? Konpresen iragarkietan, zergatik da odola urdin kolorekoa? Galdera horiek guztiek erantzuna izango dute bihar, taldeak Antzuolan egingo duen emanaldian.

Noiz: Martxoaren 10ean. Tokia: Antzuolako zinema aretoan. Ordua: 22:30. Sarrera: 1.000 pezeta.

JUBAR®

ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea, 18
• Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 Postakutxa • ARRASATE

- Garajeko atea
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko agente tresnak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak





Umore giroan

Izaro Aperribai

ANGULAK

Bada bilbotar bat eta arraindegi batera sartu da.
— Hi, angulia zenbatian daukak?
— Bost milla durotan!
— Ez dok merkia! Eta kilua?

KALTONTZILLO BERRIXAK

Erromanuak galeretan, ontzixak arraunekin eruaten, eta halako baten, kapitaiña aillegau da eta...
— Cesarrek berri on bat eta beste txar bat emon dost. Zein emango dotsuet lehenengo?
— Lehenengo ona, lehenengo ona...

— Ona da kaltontzilluak aldatu bihar ditzuzuela.
— Eta txarra?
— Zuk honekin, hark bestiak eta beste horrek harekin...

LOTERIXIA

Gabonak pasauta, atzera be lanera, elkartu dire bi lagun.
— Zelan pasau dittuk opor egunok?
— Ixillik egon hadi, adar jote ederra egin jostek loterixiak.
— Zer ba?
— Numero bategatik etxostan gordua tokau, bat irten zuan eta nik beste bat najaukan.

Hitz gurutzatuak

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |



Ezker eskuma

1/ Galdera. 2/ Animalia adarduna. Beldur. 3/ Baldarrak. 4/ Lehen biak. Azalera-neurria. Kasik. 5/ Gipuzkoan, zain. Trebeak, jaioak. 6/ Agiri-mota. Hitz. Bokala. 7/ Gueroa. Hauteman. 8/ Bokala. Zikinkeria. Lehenengo nazioartekoa. 9/ Pluralean, idazki-mota. Galioa. 10/ Suari dariona. Alokairua.

Goitik behera

1/ Neskazaleak. 2/ Arabar. Germanioa. 3/ Pinu-mota. Europako estatu. 4/ Daude. Lehenengo. Zakur. 5/ Txori-mota. Landare-mota. 6/ Katean azken maila biribilak. 7/ lodoa. Atala. Errepikatuz, txori-mota. 8/ Nafarroako herria. Gurdi-mota. Kontsonantea. 9/ Ipurtzuloa. Letoniako hiriburua. 10/ Ba.... baneuka. Kafea.

Bila-bila 7



Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola




Debagoieneko zein herritan dago etxe okupatu gabe gutxien?

Askotan entzuten dugu herrietan etxe berriak egin eta egin dabiltzala eta etxe piloa dagoela hutsik. 1996ko eroldaren arabera, 3.401 etxe zeuden okupatu barik, etxebizitza guztien %14,3. Baina, herriz herri aldeak handiak ziren. Asmatuko ote zenuke zein herritan zen etxebizitza okupatu gabeen proportzioa txikiena?

- Arrasate.
- Oñati.
- Aramaio.

Erantzun zuzena: Oñati (%21,2); Aramaio (%20,7); Arrasate (%7,9).

Soluzioak



Ezker eskuma
1/ Galdekizun. 2/ Oreina. Izu. 3/ Nafarroa. 4/ Ab. Area. 5/ Zai. Abilak. 6/ Akta. Ele. 7/ Loe. Igarri. 8/ E. Lohi. Arr. 9/ Agriak. Ga. 10/ Kea. Akura.
Goitik behera
1/ Gonazaleak. 2/ Arabako. Ge. 3/ Ler. Katedra. 7/ I. Saita. Ku. 8/ Zia. Lera. 9/ Uzka. Riga. 10/ Nu. Aketa.

Horoskopoa

Berenize

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Lehenagoko egoeretan murgildu eta egoera horiek kontrajartzeak emaitza onak ekarriko dizkizu. Zure helburuetako batzuk lortuko dituzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Aurreko egunetako ahaleginaren emaitzak gozaten hasiko zara, baina zain itzazu zure berbak, norbaitek txarto uler ditzake eta. Lasaitu zaitez.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Edozerri aurre egiteko indarra, zure sena eta ideia bikainak adieraziz. Zaindu zure handinahia.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Gorde itzazu zure asmoak lagunen aurrean, adierazi nahi duzuna zer den ondo jakin arte. Atzerapena zure egitasmoetan.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Zure karisma modu apalean azalduko da. Lehian lortu ezin duzuna, agian norbaiten antzera jokatzu lortuko duzu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Jar itzazu praktikan ondo garatuta dituzun asmoak. Ahalegin handia eskatuko dizute.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Zure laguntzaileengandik espero zenuen emaitzekin, lasaitasuna eta baretasuna. Segurtasun inguru gehiago aurkituko dituzu.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Atsedena, hau da, relax unea, aprobetxa ezazu errekupeatzeko. Unean unekoaz gozatu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Zure bizitzako oinarri guztiak azkar aldatzen ari dira. Ez zaitez beldur izan, berrikuntza emankorra izango da eta zuretako.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Zeure burua eta zeure itxura dira zeure ardura bakarrak. Orain ez zaizu beste ezer interesatzen.

AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Gogotsu hartu beharko dituzun egitasmo eta erronkak. Denborak aurrera egin ahala, emaitza onak emango dizkizute.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Ez izan harremanen beldur, horrela ere gauzak ikasi daitezke. Gara itzazu antzerkirako zure dohainak.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA



Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa

ERAKUNTZA

1989ko martxoaren 20an eratu zen Gasteizen Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa, Eusko Legebiltzarrak indarrean daukan Euskadiko Kooperatiben legearen, 1/1982 otsailaren 11koa, babespean.

FEDERATUTA DAUDEN KOOPERATIBAK

1999ko ekainean federatuta dauden kooperatiba kopurua **351**koa da, lurraldeka banaturik:

- Araba61
- Gipuzkoa.....156
- Bizkaia134

LANGILE BAZKIDEAK

351 kooperatibek **23.532** langile-bazkide dituzte. Lurraldeka banaturik:

- Araba1.584
- Gipuzkoa.....16.695
- Bizkaia5.253



ZERBITZUAK

Federazioko kooperatibek ondorengo zerbitzuak dohainik hartzeko eskubidea dute:

- Erakunde-ordezkaritza
- Kudeaketa-tresnak diseinatzea, adibidez:
 - Urteko Kudeaketa Planak
 - Kostuak kontrolatzeko sistemak
 - Jendearen poztasun-maila neurtzekoa
 - Kudeaketaren kalitatea aztertzekoa
- Prestakuntza tekniko eta kooperatiboa
- Merkataritza eta Kreditu Zerbitzua
- Aholkularitza eta informazioa:
 - Juridikoa
 - Soziala
 - Ekonomikoa
 - Zergei buruzkoa
 - Finantzariora
- Finantza eta komunikazio erakundeekin lankidetzak-hitzarmenak lehentasunezko baldintzetan

FEDERAZIOAREN PRINTZPIOAK

- Federatutako kooperatiba bakoitzaren autonomiaren errespetua
- Federazioarekiko atxikimendua edo atxikimendu eza norberaren baitan dago
- Elkartutakoen interesen zerbitzuan eta defentsaren helburuarekin
- Barneko gestio demokratikoa



Reyes de Navarra, 51
Tel.: 945 25 70 88
Faxa: 945 25 39 59
01013 GASTEIZ
posta-e: koop@euskoop.org
www.euskoop.org

Goiena Telebista


Telebegi

Sarrera doan

Lerro hauen izenburua daraman GOITBko saioa gustatzen zaidan arren, ez dut, oraingoan, programa hori hizpide hartuko. Hauteskundeei buruz arituko naiz, irakurle guztiak galtzeko moduko gaia aipatu dudan arren.

Duela urte batzuk, "Doaneko tarreak" deitzen zituzten, musu truk, alderdi guztiei eskainitako publizitate minutuak. Bertan, esan gura zituztenak esateko "barra libre" zeukaten (Garzon epaile espainiarrari esker "libre" izatearena 18 hilabeteko kartzela-zigorragatik itzuli daiteke; galdetu HBko mahaikide ohiei)

"Doaneko tarreak" *versus* "Ordaindutako tarreak"? Zeintzuk dira debaldekoak eta zeintzuk diru trukean lortutakoak? Hauteskunde legeak arautzen du alderdiei zenbat denbora eskaini behar dieten gure botoa irrati-telebistaz eska dezaten. Baina, zelan arautzen dute albistegietan, kanal publiko eta pribatuetan, alderdiei (erakunde modura zein okupatzen dituzten instituzioei denbora dedikatuz) eskainiko dieten doaneko publizitatea? Eta, zaila bada telebista eta irrati publikoetan aukera politiko guztien arteko orekaz pentsatzea ere, nork sinisten du kanal zein emisora pribatuetan iritzi guztiek aukera bera dutela? Hauteskunde kanpainak Fatimako Ama agertu zeneko egunera eramango gaitu. Oreka informatiboaren falta laugarren profezia ote da?



Edorta Arana

Mahaiaren bueltan

Eguaztena, 21:05ean

Bailarako kultura ekimena aztergai

Monika Belastegi kazetariak gai mamitsua jarriko du mahaiaren bueltan. Debagoieneko kultura ekimena izango da eztabaidagai GOITBn datorren eguaztenean. Monikarekin batera, Iban Arantzabal, Diego Martiartu (Putz), Jon Garai (Arrasateko kultura teknikaria) eta Arriola kultura aretoko ordezkaria izango dira saioan. Kontuan hartzeko hitzordua, eguaztenean, 21:05ean.



Asteburuan, kirola

Domeka, 12:30ean

Domeka eguerdian, futbola

Domeka arratsaldean Aloña Mendi eta Mundarro taldeek Oñatin, Azkoagain futbol zelaian, jokatuko duten futbol partidua oso-osorik eskainiko du GOITBk. Norgehiagoka garrantzitsua da oñatiarrendako, izan ere, irabaziz gero, lidertza eskuratzeko aukera dute. Partidua domeka arratsaldean emango da, 20:00etan. Iñigo Arregi, Oñatiko *Kontzejupetik* aldizkariko arduradunak egingo ditu esatari lanak. Futbolzaleok gogoan hartzeko moduko hitzordua duzue domeka arratsaldean GOITBn.

Astebete

Egubakoitza, 21:05ean

Asteari errepasoa

Ohi bezala, asteko albisterik garrantzitsuenak hizpide izango ditu egubakoitzean *Astebete* saioak. Gai nagusia: Haika gazte erakundeko 15 kideren atxiloketa. Programako ohiko edukiak ere ez dira faltako: herri aldizkarien errepasoa, albiste errota... 21:05ean ikusteko aukera izango duzue Marijo Deogracias kazetariak gidatutako saioa, Eneko Azkarate eta Mikel Lezamiz lagun izango dituela.



Asteko programazioa / Martxo: 9-15

| EGUBAKOITZA 9 | ZAPATUA 10 | DOMEKA 11 | ASTELEHENA 12 | MARTITZENA 13 | EGUAZTENA 14 | EGUENA 15 |
|---|---|--|---|--|---|---|
| 13:30 Albiste aurrerapena | 13:30 Saioen errepikapena <i>Gatza eta berakatza, Alkatearekin berbetan, Aurrez aurre, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete</i> | 13:30 Saioen errepikapena <i>Gatza eta berakatza, Ekilan, Aurrez aurre, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete</i> | 13:30 Albiste aurrerapena | 13:30 Albiste aurrerapena | 13:30 Albiste aurrerapena | 13:30 Albiste aurrerapena |
| 13:40 Gatza eta berakatza | | | 13:40 Gatza eta berakatza | 13:40 Gatza eta berakatza | 13:40 Gatza eta berakatza | 13:40 Gatza eta berakatza |
| 13:50 Sarrera doan (errepikapena) | | | 13:50 Astebete | 13:50 Goienasport (errepikapena) | 13:50 Ekilan (errepikapena) | 13:50 Aurrez aurre (errepikapena) |
| 20:00/20:30: Berriak | | 22:00 Futbola: Aloña Mendi-Mundarro | 14:20 Futbola: Aloña Mendi-Mundarro | 19:45 Gatza eta berakatza | 19:45 Gatza eta berakatza | 19:45 Gatza eta berakatza |
| 20:30 Non-zer | | | 19:45 Gatza eta berakatza | 20:00 Berriak | 20:00 Berriak | 20:00 Berriak |
| 20:35 Berriak | | | 20:00 Berriak | 20:30 Non-zer | 20:30 Non-zer | 20:30 Non-zer |
| 21:05 Astebete | | | 20:30 Non-zer | 20:35 Berriak | 20:35 Berriak | 20:35 Berriak |
| 21:30 Soinuz blai | | | 20:35 Berriak | 21:05 Xeleberri | 21:05 Mahaiaren bueltan: Debagoieneko kultura ekimena | 21:05 Sarrera doan |
| | | | 21:05 Goienasport | | | 21:30 Soinuz blai |

Barruko kontuak


'SAREAN', MARTIZENERO

Internetet tresna ezinbestekotzat jotzen du geroago eta gujende gehiagok. GOITBk ere teknologia eta hedabide berrien erronkari aurre egin gura dio, eta sare artea hobeto ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen dizu martizenero. Alberto Izagirre internet adituaren eskutik. Datorren astean, salerosketarako eta enkanterako internetek eskaintzen dituen aukerak landuko ditu. Adi, beraz.

SARRERAK DOAN


Amagoia Lasagabasterrek eguenero aurkezten du *Sarrera doan* magazina. Kontzertuak, liburu eta disko arrakastatsuenak, antzerki emanaldiak... izaten ditu hizpide. Baina, programaren izenak dioenez, astero zuei banatzeko kultura ekitaldietako sarrerak izaten ditu Amagoiak. Datorren asterako planik? Apuntatu zure agendan telefono hau: 943 71 23 93. Deitu besterik ez duzu, eta sarrera bat doan zuretako.

Kamera aurrean



"Gauzak ondo ateratzen badira, jendea edukiko duzu atzean. Gaizki irtetzen badira, bakarrik geratuko zara"

Jon Odriozola | ibanesto.com taldeko txirrindularia
"GOIENASPORT" (2001-5-03)



"Udal aurrekontuak datorren astean onartu nahi ditugu, eta EHrekin batera onartzea da helburua"

Victoriano Gallastegi | Bergarako alkatea
"ALKATEAREKIN BERBETAN" (2001-7-03)

Atzeskua

MAIDER OSA

Maria Josefa Ganuza/Monzonen alarguna

Martxoaren 9an, 20 urte beteko dira Telesforo hil zela. Zelan gogoratzen duzu?

— Maite izan dudana gizona bezala. Niretako guztia zen. Oso abertzalea zen. Madrilen egin zituen Zuzenbide ikasketak, eta ongi pentsatu ondoren deliberatu zuen euskalduna zela eta bere bizitza horretarako emango zuela, eta bide hori ez zuen utzi. Nik 16-17 urte nituen orduan. Hortaz, lehenbizi Urkizura joan zen euskaraz hobeto ikastera.

— Zuk zelan ezagutu zenuen?

— Lehengusuak ginen. Oso atsegina eta alaia zen. Udan, Eskoriatzan igarotzen genuen hilabete, eta bera bizikletaz edo autoz etortzen zen anaiarekin batera.

— Hainbat abesti idatzi zituen, batez ere, gerora **Pantxoa eta Peiok abestu dituztenak: Batasuna, Itziarren semea...**

— Baita poesia ere. Mexikon zela, *Urrundik* poesia liburua idatzi zuen. Ni nintzen bere poesien termometro. Niri irakurtzerakoan, distraitu eta beste aldera begiratzen banuen, *honek zein txarra behar duen!* esaten zuen. Aldiz,

hunkitu eta malkoren bat isurtzen banuen, poesia hark ona behar zuen. Idaztea zen bere zaletasunetako bat, eta oso hizlari trebea ere bazen. Konparazioak egiten zituen politikaz berba egiterakoan ere. Euskaldunondako konstituzioa txikiegia zela ulertarazteko, esaten zuen gizon bat txapel bat erostera joan zela, eta txikia zuela. Eta txapela handitu beharrean, gizonari burua txikitzea pentsatu zutela.

— 1936tik 1976ra **erbesteratuta egon zen. Zuk ere garai latzak biziko zenituen...**

— Bidaia oso latza izan zen. Urtebetez bodega baten egon zen gizonekin, eta ni beste bodega baten andrekin. Kontzentrazio guneetan ere izan ginen. Gero, itsasontzi bat hartu eta Argentinara joan behar bagenuen ere, Mexikon gelditu ginen.

— **Kartzelan ere egon zen.**

— Gerra baino lehenago. Baina, ez zen orain bezala.


Nik ez dut hain tragikoa gogoratzen.

— **Erbestetik itzultzean, jendeak sekulako harrera egin zion Bergaran.**

— Bai. Telesforo Askatasunaren Martxarekin etorri zen, eta orduan alkate zen Jose Luis Elkorok besarkada eman zion. Oso momentu hunkigarria izan zen. Udaletxeko leihotik berba egin zuen gero, eta Bergara guztion artean egin behar genuela esan zuen, batzuk eta besteak banandu barik. Abertzale guztiak batuta ikustea eta kanpotarrak euskalduntzea zen bere nahi nagusia.

— **Literaturaz eta politikaz etxean ere berba egiten zuen?**

— Batez ere, politikaz. Berez, ez zen politikoa, abertzalea zen, baina abertzaleak politikara jaitsi beharra du, bere gogoia betetzeko. Politika askoz zikinagoa da; abertzaletasuna gauza ederra da, baina politika bidez goratu behar da abertzaletasuna.



► Bergararra / 88 urte / Telesforo Monzonen alarguna

“Politika abertzaletasuna baino askoz zikinagoa da, baina politikaz goratu behar da abertzaletasuna”

“Abertzale guztiak batuta ikusi nahi zituen Telesforok”

“Ni nintzen bere poesien termometro”

AIPAGARRI



AINHOA AGIRREAZALDEGI
Bergara / Bertsolaria

Datorren egubakoitzean, Dhilak 16, jokatu dute Oñatin Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiko Gipuzkoako lehen kanporaketa. Saio horretan, Debagoieneko hiru bertsolari izango ditugu: Ainhoa Agirreazaldegia bergararra eta Joseba Lasagabaster eta Ander Lizarralde oñatiarrak.



OIHANE AGIRRE
Aretxabaleta
Errealizadorea

Urtetan Arrasate Telebis-tako langilea izan da, eta Goiena Telebistaren sorreratik, iazko maiatzetik, albiste-gietako errealizadorea da. Aurrerantzean, GOITBko zuzendaria izango da, Andoni Urtzelai ordezkatzuz. 28 urte ditu.

MILAR ELKORO

ELEKTRONIKA ARRASATE. S.A.

Olarte, 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 18 86 / 943 79 74 49
Faxa: 943 77 09 36

Milar, beti gehiago.